



2008ko gabonak



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...
- ...

*Eguberri jai
xoriontsuak
opa
dizkizuegu!*



Okela



HARATEGIA



Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885
Lasarte-Oria



Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912
Lasarte-Oria

Ondo pasa
Gabon jaietan!



ETXARRI DIGITAL

DIGITAL

943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA

KIOSKO DIGITALA



Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu,
lagunarte ederrean!



ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA



Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU



A U R K I B I D E A

4-6

Txema Valles

25 urte DVko kronikari

7-11

Lasarte-oriarrak 2008an

- David Martin
- Maialen Chourraut
- Harkaitz Cano
- Maddi eta Ane Labaka
- Amaia Artetxe
- Luis Mari Telleria
- Rafa Diez
- Maratoiaren urtea
- Zero Sette

12-14

Aiora Zulaika, Pirritx

Euskaraz ongi pasatzen lehen helburu

16-18

Joxe Zapiain

Pisako Dorrea egonkortzeko ahalegina

19

Iñigo Artolaren altxorrak

20

Jaiotzak

21

Jolastu euskaraz

22

2008tik 2009ra jauzia

23

Aritz Sound System Gau Multimuskalean

24

Gabonetako Haur Parkea

25

Ttakunen gabonetako egitaraua

26-27

San Tomas Feria

28-29

Agenda, zorion agur eta oharrrak

30

Olentzerorentzako gutuna

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.300 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



“Historiako dokumentalista izan beharko nuke”

Donostian jaio zen Txema Vallés 1958ko urriaren 11an. Hala ere, “Torre etxean jaio naizela esaten dut beti, nire lehenengo hamar urteak etxe horretan bizi izan nituelako”. Beraz, esan dezakegu bizitza erdia lana egin duela Lasarte-Oriako kronista bezala. Izan ere, duela 25 urte abenduaren 27an, Diario Vascon Lasarteko kronika idazten hasi zen. Hau aitzaki hartu dugu berarekin hitz egin eta bere ibilbideari errepaso bat emateko. Txema ezagutzen duenak badaki hitz egiteko erraztasuna duela eta berarekin egon garen tartean memoria ona duela ere erakutsi digu, jendearen izen abizenak edo duela hogeita hamar urte jokatu zituen partidua esanguratsuen emaitzak ere gogoratzen ditu.

Itziar CARRASCO

Txema Lasarteko eskola nazionala hasi zen ikasten, Don Leonardo Utrillas irakaslearekin. Antza denez praktikantea ere bazen gizon hau, “hark cara al sol abestera behartzen gintuen”. Modu garrantzaz gogoratzen du Txemak Utrillas irakaslea, “bost urte nituela, komunera joan nahi nuelako eguerdian bazkaltzera joan gabe zigortu ninduen, egun horretan beharakoa nuen. Hori ez dut bizitzan ahaztuko”.

Zazpi urte zituela Angeles Galardiarekin ere ikasi zuen Txemak, egun Ttakun elkartearen bulegoa dagoen horretan ematen zituen eskolak. Garai hartako pasadizo bat kontatu digu: “Tren geltokiko nasan jolasten genuen eta gogoratzen dut Lontxo Alkainek bultzatzen egin eta buruz trenbidera erori nintzela. Burua ireki zidan eta berak burutik ura ateratzen ari zitzaidala esaten zidan. Berehala Okendo frontoiko atzeko aldean zegoen anbulategira eramanez ninduten”.

Lasartetik Añorgako eskolara, Don Jose Rozasekin, garai hartan Lasarteko liburutegiko arduraduna izan zenarekin. Gero batxilergoa Luis Juaristirekin egin zuen, “izan dudana irakaslerik onena izan da. Prestaketa horrekin Don Boscon aurkeztu ginen froga bat egitera eta gogoan dut, promozioko 3.a izan nintzela”.

Garai hartan Michelingo langileen seme alabek bekak lortzeko aukera zuten eta Don Boscon lortutako emaitzari esker Txemari ikasketa guztiak ordaindu zizkioten.

Kazetaritza munduan murgildu aurretik, elektronika ikasi zuen Txemak. “Maestro Industrial titulua lortu eta gero peritajea hasi nintzen egiten, baina ez nuen bukatu. Garai hartan, zinera klaseetara baino gehiago joaten nintzen eta”.

Michelingo langilea

Ikasketak alde batera utzi eta Michelinen bertan bekadun bezala hasi zen lanean: “hamalau urte nituela hasi nintzen udatan fabrika lanean. Goizeko 6etatik 14:00ak arte egiten

Txema Vallés / DVko berriemailea Lasarte-Orian



“Hamalau urte nituela, igandeetan fabrikatik hipodromora boletero bezala lana egitera joaten nintzen.

genuen lana, baita igandeetan ere. Jai egunetan lanetik atera, bazkaldu eta korrika hipodromora boletero bezala lana egitera joaten ginen. Garai hartan ez zeuden makinariak, eskuz kontatu behar ziren boletoak eta dirua falta bazen gure poltsikotik jarri behar genuen. Imajinatu, kontabilitatean zein azkarrak ginen”.

Hemezortzi urterekin, Michelinen azpikontratatuta lana egiten zuela, Tolosako futbol taldeak fitxatu zuen, 3. mailan jokatzeko. “Garai hartako lanaldiak 16 ordukoak izaten ziren askotan. Tolosako aurre

denboraldia prestatzeko arratsaldeko 6etan alde egin behar nuen lanetik, baina gerenteari ez zitzaion ondo iruditzen eta kontratua kendu zidan, gainontzeko langileek 16 ordu lan egiten zituztelako eta nik 12. Kalera bota ninduen. Agian mesede egin zidan”.

Kirolari amorratua

Txemak txikia zenetik egin du kirolaren bat, baina batez ere futbolearen aritu da atezain. Hamabi urteekin Txaseko hondartzako haurren taldean atezain bezala hasi zen eta “Pedro Fernandezek Añorgara eraman

ninduen, larunbatetan hondartzan eta igandeetan zelai handian gazteekin jokatzeko nuen, naiz eta ni infantil izan”. Lau denboraldi egin zituen Añorgan. Futbolaz hitz egiten hasten denean, irribarre bat margotzen zaio aurpegian Txemari, baina oroitzen dena ari denean soilik. Egungo Errealari buruz hitz egiten badu, berriz, aurpegia aldatzen zaio. “Gogoratzen naiz Atotxan jokatu zen jubenilen azken finalean jokatu nuela, 3-2 galde genuen Lehenengoaren aurka. Jubenilen lehen liga nazionala jokatu eta 4. postuan amaitu genuen denboraldia. Añorgak Liga Nazionala izan duen saikala nuen onena izan zen urte askotan. Denboraldi hartan Sardineroan Racing taldearen aurka jokatu genuen. Gure aurretik Racing-Elche lehen mailako partidua jokatu zen”.

Eguberri on!!



ORIA

karrozeriak

AUTOEN TXAPA ETA PINTURA


Erribera kalea, 3 behe • 20160 LASARTE-ORIA • Tel./Fax: 943 37 33 88

I. Urruzola aroztegia

Eguberri on!

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea
 (Errekatxo jatetxearen ondoan)
 Tel.: 943 371200 / 610 413131
 LASARTE-ORIA



“La voz de Euskadi 80. hamarkada hasieran sortu zen eta bertan Iñaki Eskisabelekin hasi nintzen lanean. Urte betez egin genuen lana xoxik ikusi gabe. Imanol Lizardik Lasarteko kronika egiten zuen, gero Carlos Garciak hartu zuen eta honek utzi zuenean, nik hartu nuen erreleboa.”

Añorgatik Tolosara, Tolosatik Alicanterara, Hercules-en bigarren taldera. Soldaduska garaian, Cartajenan, ez zuen futbola utzi. "Soldaduskatik bueltan, 21 edo 22 urte nituela, Hernaniko 3. mailan jokatzeko deitu zidaten, baina 19 urteko beste bi atezain zituztela eta zaharra nintzelako ez ninduten hartu. Bi atezain hauek Gar-

mendia eta Ayerbe ziren, gero Eibarren jokatu zutenak". Gauzak horrela eta futboleant jarraitzeko gogoekin, herrian bertan jokatzeara erabaki zuen eta Lasartearra taldearekin bi denboraldi preferentean egin zituen.

Burukada

Txemak oraindik gogoan du herrian jokatu zuen azken partida, izan ere, partiduan bertan larrialdietara eraman behar izan zuten. "Hondarribiren aurka lehiatu ginen. Aurrelariak lepo-hezurrean burukada bat eman zidan eta bertan gelditu nintzen, konorterik gabe. Pitxi Egañari esker nago hemen. Berak zelaian bertan lagundu zidan. Larrialdietako medikuak esan zidan belarriari esker bizi-rik nengoela, belarriak zartakoa arindu zuela, zentimetro bat harantzago eta hilda egon nintzekeela".

Txemak kontatu digunez, bere bizitzan bi aldiz egon da hiltzorian. Lehena, jaio berria zela kukutxeztula (toxferina) izan zuen eta momentu batean hiltzat jo zuten: "Teresa Arzalus gure bizilagunaren besoetan nengoela, hilda nengoela uste zuten. Orduan, Don Pablo Hernaniko medikuak astindu batzuk eman zizkidan eta arnasten hasi omen nintzen". Bigarrena, Michelinen hartutako burukadaren ondorioz izan zen, "horrekin futbola uztea erabaki nuen".

Baina, ez zuen guztiz futbola utzi, urte batzuen bueltan, areto-futboleant hasi baitzen. Splah taldean jokatu zuen liga autonomikoan. "Modu honetan areto-futboleko federazioko idazkaria ezagutu nuen, beranduago nire aitaginarreba izango zena". Edozertaz ari dela ere, badu beti pasadizoren bat kontatzeko.

Kirolaren inguruan ezagutu zaitugu beti...

Kirola asko gustatzen zait. Gainera, lan kontuak direla, edo pertsonalak direla, egoera latzetan, non sartu ez dakizunean, horrelakoetan, dena utzi eta korri egitera joaten naiz, Dutxa bat hartu ondoren gauzak beste modu batera ikusten ditut.

Zu ere Donostiako danborrada-ekin hunkitzen zaren horietako bat al zara?

Nahiz eta donostiarrak ez izan, Donostiako bezpera niretzako berezia da. Himnoa jotzen hasten diren momentuan, oiloipurdia jartzen zait, benetan. 1970ean Lasarteko txikien danborradan ateratzen nintzen. Garai hartan Hernanin ez zuten danborradarik eta San Juan egunean Hernanira eramaten gintuzten danborra jotzera, autobus gorrian, "el txangai" autobusean. Hernanin inoiz ez dute jakin danborra jotzen, argi gera dadila - dio parrez -. Eta hamazazpi urterekin beterranoen taldean hasi nintzen. Mugu-ruzak, Mitxelenak eta Felixek gidatzen zuten. Bileran batean erabaki zen urte batean beterranoen danborrada izango zela eta bestean mistoa. Barrilen zuzendaria izan nintzen mistoan, Carmelo eta Kastrorekin batera. Juarezek, barriletako zuzendariak, utzi zuenean nik ordezkatu nuen.

Nola hasi zinen kazetari lane-tan?

La voz de Euskadi 80.hamarkada hasieran sortu zen, bertan Iñaki Eskisabeleki kirol-etako kronikak egiteko proposatu zidan.

Urte betez egin genuen lana xoxik ikusi gabe. Imanol Lizardik, Oztarango irakasleak, Lasarteko kronika egiten zuen,

Jalgune Elkarte




Gure Ametsako lagunen partetik Eguberri on!



Erribera kalea 1, behea • LASARTE-ORIA



EGUBERRI ON!

NEWS

Pablo Mutiozabal 9-1.C

ANAIAK

JANTZI-DENDA




Eguberri on!!

Kale Nagusia 25 • Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA



Oina irakurri gabe ez dago erraza, Txema Vallés nor den asmatzen. Atezain jokatzeko zuten.



gero Carlos Garciak hartu zuen eta honek utzi zuenean, nik hartu nuen erreleboa. Lehenengo kronika 1983ko abenduaren 27an egin nuen eta 28an kale-ratu zen. Lehenengo kronika inozentada bat izan zen, diplo-docus-eko fosil bat ahateen lakuan agertu zela idatzi nuen.

Duela 25 urte, ez zenuen ez ordenadorerik, ezta kamara digitalik, ezta?

Etxean Oliveti batekin idazten hasi nintzen eta argazkiak yashica batekin egin eta gero argazkiak nik errebelatu behar nituen. 1988an Tandi bat jarri ziguten lanerako, telefonoaren bitartez funtzionatzan zuen portatil txiki bat zen. Gero teknologia berriak sartu ziren, PC, Mac...

Egun aurrerapen teknologiko pila bat ditugu baina gero eta denbora gutxiago daukagu gauzak egiteko. Askotan pentsatzen dut kronikak idazteko makinan kalkoekin idatzi, karreteak errebelatu eta bidali behar bagenitu, egun ezingo genukeela. Egia da ere, lehen kronikak ez zutela gaur duten gaurkotasunik.

Kiroletako kronista gisara ere aritzen zara,...

Areto-futboleko jokatzan nuela hasi nintzen kirol kronikak idazten, futbol baseko ardura-dun jarri ninduten, Atotxako aldagelak kubritzen nituen...

Izango duzu, ziur, Atotxako aldagelatan gertatutako pasadizoren bat kontatzeko...

Atotxan egin nuen azken elkar-riketa Berd Schusterri egin nion. Errealak 2 eta 1 irabazi zion Atletiko de Madrid taldeari. Schusterrek, haserre, ez zuen ezer esaten eta nik orrialde erdia bete behar nuen.

"Berd, se te ve un poco mal-humorado" esan nion, grazia egin zion eta hitz egiten hasi zen. Horri esker kronika egin ahal izan nuen eta ETBkoek ere zerbait grabatzeko aukera izan zuten.

Zaila al da zeure herriko kronista izatea?

Eskolan azterketak 20 lerroetan egiten nituen eta ondokoak bi orrialde zituela ikusten nuenean beti pentsatzen nuen, gaizki egin dut, zerbait jartzea ahaztu egin zait. Aitortu behar baldin badut ez dut gustuko idaztea. Lan honek jende asko ezagutzeko aukera ematen badit ere bidean gauza asko utzi ditut, batez ere familia.

25 urtean kronika zailak idatziko zenituen, zein gogoratzen duzu zailena?

Momentu oso latzak pasa ditut 80 eta 90. hamarkadetan, batez ere gai politikoengatik. Gogoratzen naiz Froilan Elexpe erail zutenean edo Frantziako Tourra ikusten ari nintzela anbulantzia ziztu-bizian pasa, jarraitu eta



Kirol kronikak egiteaz gainera, kirolaria ere bada Txema. Irudian, aurtengo Behobiatik Donostiara probaren amaieran.

Miguel Angel Blanco aurkitu nuela lurrean. Herriko kronista izatea ez da batere erraza. Uste dut kazetaritzako posturik zailena hau dela.

Argitaratu duzun zerbaitetaz damutzen al zara?

Albisteren bat kontrastatu gabe argitaratzeaz. Lana oso azkar egin behar dugu, askotan ez daukazu informazioa kontrastatzeko denborarik eta hiru aldiz pentsatu gabe publikatzen duzu.

“Egun aurrerapen teknologiko pila bat ditugu, baina gero eta denbora gutxiago daukagu gauzak egiteko.”

Zer egingo duzu gordeta duzun material fotografikoarekin?


Nire betiko pasioa artxiboa izan da. Nik historiako dokumentalista izan beharko nuke. Ofizios nahastu egin naiz. Txikitatik egunkarietako albisteak gorde izan ditut. Nire artxiboan

Lasarte-Oriako azken 25 urteotako historia daukat gordeta. Nazioarteko Krosaren historiari buruzko argazkiak eta informazioa jasota neukan liburu bat egiteko asmoarekin, baina berandu nabil, beste batek egin du eta. •

Fruituen eta barazkien Donostiako merkatu zentrala



Tel.: 943 376 402
Faxa: 943 376 172



www.merkabugati.com
Hipodromo etorbidea 75
20160 ZUBIETA - DONOSTIA



Lasarte Oriarrak 2008an



David Martin / Korrikalaria

Lasarte-Oria eta inguruko herrietako krosetan garaile

Aurtengo urtea maratoi luze bat izan da David Martin korrikalariarentzat. Lasterketa bat bukatu eta atsedean aktiboa izaten da bere atsedena, hau da, erritmo lasaian zenbait kilometro korrika egitea. Urtarrilean hasi eta urtero bezala hainbat lasterketatara parte hartu du. Denboraldia oso ona izan da beretzat. Bost kross irabazi ditu, Ormaiztegiakoa, Andoaingoa, Urnietakoa, Hernanikoa eta Lasarte-Oriakoa, eta beste askotan podiumean izan da. Behobia-Donostia lasterketan ere onenen artean ibili zen eta 7. postua eskuratu zuen.

Pozik da David Martin egin dituen aurrerapenekin. Garbi du ez dagoela formula magikorik eta egindako lanaren ondorio direla emaitza horiek. Baina batez ere oso harro dago Lasarte-Oriaren izenarekin.

te-Oriaren izenarekin korrika egi-teaz: "txalo handia merezi du Ostadarrek eta sortu duen atletismo taldeak. Meritu handia dauka, zeren eta herriaren izena kanpora baitaramagu. Batzuk askotan joaten ginen geure kabuz eta hemendik aurrera taldean joango gara eta herriaren izena zabalduko dugu pixka bat".

Orain atsedendaldi bat hartuko du, baina laster berriro ekiteko asmoz. Dena den zaila ikusten du jada markak hobetzeko aukera: "Oso zaila da. 35 urte dauzkatz eta batez ere motibazioa aurkitzea geroz eta gogorragoa da. Ikusten duzu margen gutxi dagoela edo batez ere esfortzu bera edo gehiago egin behar duzula aurrera egiteko. Nik orain daukadana mantentzen badut nahikoa".

"Txalo handia merezi du Ostadarrek. Atletismo taldeari esker herriaren izena zabalduko dugu."

Maialen Chourraut / Piraguista

Emaitza oso onak lortu ditu urte osoan, Pekingo olinpiar jokoetan izan ezik

Urte berezia izan da 2008a Maialen Chourraut piraguistarentzat, nahiz eta urte osoko emaitza onak ez zituen Pekingo olinpiar jokoetan boro-bildu.

Pekinen ez zuen suerterik izan, eta hasi orduko lehiaketatik kanpo geratu zen. Dena den, ordura arte urte osoan oso emaitza onak lortu zituen munduko hainbat tokitan eta baiko-rra da. "Ez da soilik jokoetan egindakoari begiratu behar, urte guztiko lana oso ona izan da eta hori irabazita daukat. Oso gustura nago". Ez du oraindik kirola uzteko asmorik eta pozik joango litzateke berriro lau urte barru Londongo olinpiadetara.

Chourraut-ek urte asko dar-matza piragua gainean ur bizieta-ko txapelketetan eta aurtun munduko onenekin lehiatu da. Pozik dagoela adierazi zigun lasarte-oriarrak, "aurten progre-sio handia eduki dut. Egin ditudan proba guztietan geratu naiz aurreneko bosten barruan, olinpiadetan izan ezik. Hoberenekin hika-mikan hasi naiz".



Katalunian etxean bezala

Seu d'Urgell-en prestatzen ditu ur bizieta-ko txapelketak. Katalunian etxean bezala sentitzen da. Izan ere, aurtun sarri izan da kanpoan, lehiaketatan ez bazen proba horien prestakuntza saiotan: urtarrean Australi- an, otsaila-martxoan Atenasen, apirilean Pekinen, maiatzan Polonia eta Esloba- kian, ekainean bi aldiz Pekinen,... Eta gero bi proba haundi: munduko txapelketa- Brasilen eta abuztuan Olinpia- da Pekinen,...

Oroitzapen ona ekarri zuen Pekingo joko olinpikoetatik. Lau aldiz egona zen urtean zehar eta gero abuztuan ia hila- bete osoa, 25 bat egun izan zen bertan. •

"Asko aurrerratu dut aurtun. Egin ditudan proba guztietan, olinpiadetan izan ezik, aurreneko bosten barruan geratu naiz. Onenekin hika-mikan hasi naiz."

Behin jarraitzeko aukerak galdu eta gero ikuskizunaz gozatu besterik ez zuen egin: "politena behin kompetizioa amaitu eta gero olinpiada bizit- zea izan da. Atletismoko fina- lak ikusten egon ginen, 100 metro eta pertika, gimnasia, igeriketa sinkronizatua,... Oso politak. Proban izan ez dudan suertea izan nuen kirolak ikus- terakoan. Sarrerarik gabe joan, ia sarterik izango genuen pro- batzera, eta 100 metroko finala bertatik ikusi genuen, Bolt eta besteak ia aurpegi aurrean geneuzkan. Pertikako finalean, berdina, justu parean tokatu zit- zaigun. Suertea. Estadiora joan ginenean ez genekien non izango ginen ere". •

Bideo Lagunak

Eguberri on!

Betiko zerbitzu eta eskaintza
paregabeak, leku berrian!

Denda lekuz aldatu dugu!



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134 • e-maila: jose@bideolagunak.com



Harkaitz Cano / Idazlea

Nobela, saiakera, komikia, film luzea, itzulpena,... etenik gabe idazle

Aurten, Harkaitz Canoren zenbait lan iritsi dira liburutendetara. Azkena, Durango-ko Azokaren bezperan aurkeztu zuen "Zinea eta literatura. Begiaren ajeak" saiakera.

Eta "Beluna Jazz", agortua zen 1996ko bere lehen nobelaren bigarren edizioa argitaratu da hemen, itzulpena Errusian. Eta duela zenbait urte euskaraz argitaratutako beste bi lan ere atera dira gazteleraz, berak itzuli: Batetik haurrentzako idatzi zuen lehen ipuina "Itsasoa etxe barruan" eta bestetik Andaluziako argitaletxe txiki batek eskatuta, "norbait dabil sute eskaileran" poema liburua. Eta Hanif Kureishiren "Intimitatea" istorio gordina da euskarara itzuli duen azken lana.

Eta "Piztia Otzanak" komikia aurkeztu zuen apirilean Iñaki Holgado marrazkilariarekin batera. Eta Eneko Olasagastire-



kin "Ezinezko mailetak" Olasagastireren nobelaren egokipena idazten ari da zinemarako. Eta pare bat nobela martxan ditu, bat zinearekin lotua: ehun pelikulen amaierari buruzko ehun folio idatzita dauzka, folio bat

pelikula bakoitzeko eta fikzio batean txertatu nahi ditu.

Eta Amerikako Estatu Batuetako hauteskundearen jarraipena ere egin du Berria egunkariko irakurleentzat. Saltsa askotan dihardu, beraz, Harkaitz Canok beti bezala.

Hainbat hizkuntzatzen

Euskaraz, gazteleraz, ingelesez, katalanez, gailegoz eta errusieraz irakurri daiteke momentuz Harkaitz Canoren lanen bat. Gainera, martxan daude hurrengo urtean alemanez eta grezieraz aterako diren itzulpenak. Eta Iñaki Holgadoarekin egindako komikia, italieraz eta frantsesez argitaratuko da.

Donostian bizi da Harkaitz 13 urte zituenetik baina gogoan du Lasarte-Oria: "Lehen esaten nuen bizitza erdia pasa nuela Lasarten, baina jada ez du balio, erdia baino gehiago daramat kanpoan. Dena den, garai hartako gauzak ez dira ahazten: zure bizitzako urte inportanteak dira, onerako eta txarrerako,... Badago geografia bat, jendea, lagun batzuk eta istorio batzuk betirako geratzen direnak" aitortu digu duela gutxi. •

Maddi eta Ane Labaka

Gaztetxo mailako bertso lehiaketetan txapeldun

Maddi eta Ane Labaka txapeldun izan ziren maiatzean 2009ko Gipuzkoako eskolarteko bertso txapelketan. Ane gainera maila onean aritu zen Euskal Herrikoan.

Labakatarrek, laupabost urte daramatzate bertso eskolan. Maddi aizpa txikia hasi zen eta gero Aneri jarri zitzaion gogoia. 14 urte ditu Maddik eta 16 Anek. DBHn daude, bigarren eta laugarren mailan hurrenez hurren.

Zaletasuna etxetik

Zaletasuna etxetik datorkie, Joxe Kruz Labaka aita bertso eskolako partaidea eta bertsozale amorratua baita.

Maiatzaren amaieran jokatu ziren eskolarteko Gipuzkoako txapelketak Iruran eta bina txapel jaso zituzten Labaka aizpek,

“Amaia Agirrerekin asko ari gara ikasten eta ez bakarrik bertsotan. Eta lujo bat da Helduen Bertso Eskolan Patxi Etxeberria edo Unai Muñoa bertsolariekin aritzeko aukera.



“Lehen esaten nuen bizitza erdia pasa nuela Lasarten, baina jada erdia baino gehiago daramat kanpoan.

aldika productos selectos

produktu bereziak

- ahatekinak
- ehiza eta hegaztiak
- bakailao gezatua
- onddoak
- marinatuak
- olagarroa

Eguberri on!

Industrialdia 1920 943 37 70 89
Lasarte Oria aldika@euskalnet.net

ELEKTRIZITATEA

ARREGUI

EGUBERRI ON!

Kale Nagusia 39
Tel.: 943 361080 Tel./Faxa: 943 372521
LASARTE-ORIA

Miren Artetxe / bertsolaria

Iparraldeko I. Bertsulari Xapelketan hirugarren, Euskal Herrikoan parte hartuko du

bertso idatzietan bat eta bapatekoan bestea. Gainera, maiatzean bertan beste sari bat ere jaso zuten: Donostiako ikastetxetako haurren artean egiten den literatura lehiaketan bertso paperen atalean. Lehen saria biek, bakoitzak bere mailan.

Musika, futbola eta pintura

Maddi Labaka oraindik ez da erabat murgildu bertsolaritzan, soinuak jotzen du musika eskolan eta futboleko jokatzeko Ostadarren. Ane Labaka, aldiz, buru belarri ari da bertsolaritzan. Hainbat saiotan hartu du parte urtean zehar, besteak beste, Barrenak Astinduz ekitaldian, Zabaleta auzoko festatan, Euskararen VII. maratoin, herriko bikotekako txapelketan, edota GR-16 txapelketako zenbait kanporaketatan. Gainera, pintatu egiten du eta Gazte Lokalean Irakutzein aldizkaria egiten dute.

Biak Amaia Agirrerekin ari dira Asteasuko bertso eskolan. Ane, Lasarte-Oriako helduen bertso eskolara ere joaten da ostegunero. Aneren iritziz, lujo bat da Patxi Etxeberria edo Unai Muñoa bezalako bertsolariekin aritzeko aukera. Bestalde, aitoritzen du Amaiarekin asko ari direla ikasten "eta ez bakarrik bertsotan". •

Iparraldeko lehenengo Bertso Txapelketan hirugarren izan zen Miren Artetxe, erdi lasarte-oriar, erdi hendaiar, azaroren 16an Donibane Lohitzungo Jaia Alai pilotalekuan jokatu zen finalean, Amets Arzallus txapeldunaren eta Sustrai Colina txapeldun ordearen atzetik. Saio bikaina burutu zuen 23 urteko bertsolariak eta bide batez sari polita ere jaso zuen: datorren udazkenean jokatu den Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko aukera.

Lasarte-Oria eta Hendaiarekin batera badira beste geografia batzuk bere bizitzan. Euskal filologia ikasketak aurtun bukatu ditu Gasteizen eta Bartzelonan ere izan da ikasketa amaierako Master bat egiten.

Bertso eskolen fruituak

Iparraldeko bertsolarien belau-naldi berriko ordezkarietako bat da. Xalbador eta Mattin-en garaia ondoz ondo parentesia ibi eta bertso eskoletan sortutako bertsolariek hartu dute lekukoa. Bertsolaritza geldo xamar zegoen garai hartan berpizteko egindako lanaren fruitua dira egun bertsotan ari diren gazteak.

Finala bikaina izan zen. Bi faboritoen atzean bukatu zuen Artetxek, final borobil bat egin eta gero. Gaztea da baina badu



“Ikusle asko izan da Iparraldeko bertso Xapelketako kanporaketetan eta finalean. Beraz horregatik bakarrik pozgarria da.”

esperientziarik. Nafarroako eta Iparraldeko txapelketa batera egiten zenean, 2003an, 18 urterekin kantatu zuen final batean.

Miren Artetxeren ustez, ikusle asko izan da Iparraldeko Xapelketan, beraz horregatik bakarrik "pozgarria" da. •

ZUMABURU
LIBURUDENDA
Nagusia Kalea 46 behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 371386

ELBO
Eguberri on!
MEKANIKA
eta
ELEKTRIZITATEA
Injekziozko garbiketa
(dieselak eta gasolinazkoak)
Kale Nagusia 68 • Tel.: 943 370191
LASARTE-ORIA

SALAZAR PROFESIONAL
Ile-apaindegiko eta edergintzako produktuenak
Eguberri on! Jai hauetan zure irudia zainduko dugu!
Geltoki 15 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 360 211

ARALAR
Eguberri on!
Aralar plaza 1 • 48100 ORMAIZTEGUI • Tel.: 943 345591

A. Arregi erakuntzako materiala
BILTEGINAGUSIA
Oria etorbidea 6
Tel.: 943 366473
943 370998
BRAKUSKETA
Gutiala 2
Tel/Fax: 943 365947
Eguberri on!

Proba ezazu gure laser zerbitzua
MAITE
ESTETIKAKO ARETOA
Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA
Eguberri on!



Rafa Diez / Sindikalista

LAB sindikatuko idazkaritza orokorra utzi du hiru hamarkadaren ondoren

Rafa Diezek LAB sindikatuko idazkaritza orokorra aurtengo maiatzaren 23an utzi du Ainhoa Etxaideren eskutan. 32 urte eman ditu sindikatuko lehen leerroan.

Orain beste zeregin batzuk hartuko ditu betiko sindikatuari: "Sarri egin didate galdera berbera, eta orain zer? ba Biltzarra pasa eta hurrengo egunean ni LABeko egoitzara joango naiz eta betiko kezkatzen sartuta egongo naiz. Hori bai beste txip bat jarri beharko dut nire buruan urte askotako lan eskema aldatzen delako" esan zigun kargua utzi aurretik. Beraz ekarpenak egiten jarraituko du LAB sindikatuaren baitan, baina belaunaldi berriei lekua utzi die zuzendaritzan.

“ Michelin unibertsitatea izan zen niretzat, batipat, ehun eguneko greba ospetsua. Greba luze hartan sartu zitzaidan odolean halako grina sindikal eta soziala.

Donostian bizi da 1995ean urtean ezkondu zenetik, baina Lasarte-Oria sorterrria ez du ahaztuko. Herriko hainbat ekimenetan parte hartu zuen, Amnistiaren aldeko mugimenduan, Michelingo langileen aldeko borrokan edo Udalerria sortzeko ekimenean.

Michelingo unibertsitatea

18 urterekin hasi zen Michelin enpresan lanean eta bertan sortu zitzaion aldagaitza sozialaren eta langileen alde lan egiteko grina. Diezek berak aitortu du: "Michelinen garatu zen nire kezka politikoa. Benetakoa unibertsitatea izan zen niretzat, batipat, ehun eguneko greba ospetsua. Greba luze eta gogor hartan sartu zitzaidan



odolean halako grina sindikal eta soziala".

Garai hartan, 1976an, hasi zen sortu berria zen LAB sindikatuari eta 32 urte eman ditu erakundearen, horietatik 27 urte zuzendaritzan. Bere ustez, langileen eta beste eredu politiko-sozial baten alde lanean ari den

sindikatuak hartu duen dimentsioa da "politena", euskal gizartearen erakundeak duen eragina eta prozesua bera ere bai, jaio berria zen erakundeak gorpuzten joan dela ikustea: "ia ezerezetik, zerotik hasi eta gaur egun 42.000 afiliatu dauzka, enpresatan 4.400 delegatu..." •

Luis Mari Telleria / Harrijasotzailea

Euskal Herriko harri jasotzaile onenak bere etxean entrenatu dira aurretik

Aimar Irigoien eta Mari Jose Sardon 2008ko Euskal Herriko txapelkunak entrenatzen ditu Luis Mari Telleriak Lasarte-Oriako Zelai Eder etxe-ko sotoan. Gainera aurretik erroka bereziari egin diote aurre Luis Mari eta bere seme Urtzi Telleriak. Aspaldian herri kirolak ezagutu den desafiari handienetarikoa jokatu zen irailaren 28an Tolosako zeren plazan Aimar Irigoien eta Izeta II. harrijasotzaileen artean.

Norgehiagoka garrantzitsua honetan izan ziren bi lasarte oriarrak Errezilgo harri jasotzaileari laguntzen. Azkenean garaile atera ziren: Aimarrek 10 minutuko hiru tandatan 11 arrobako (137,5 kilo) harri

“ Pentsu zakuak altxatzen hasi nintzen eta gero erreka-ko harriak. Familian ez dut harri jasotzaile-rik izan.

kubikoa 115 aldiz altxa zuen. Guztira ordu erdian 15.812 kilo altxatu zituen. Aiako harrijasotzaileak zazpi altxaldi gutxiago

egin zituen. Sekulako lana osatu zuen biek eta garbi geratu zen Aimar Irigoienek Zelai Ederren egindako prestakuntza ona izan zela.

Kirolari bateranoa

Dena den, Luis Mari Telleria ez da prestakuntza sentitzen. "Semearen laguna da Aimar eta etortzen hasi zen. Nik soilik lagundu egiten diet. Harria jasotzen badaki berak" esan zigun Telleriak. 45 urte ditu eta oraindik aritzen da lagunarteko desafio edota erakustaldietan. "Aurretik besotik operatuta geldiegon naiz, eta oraintxe hasi naiz berriro" esan zigun irailan Aimarren desafiorekin aurretik.

Gaztetxoa zela, 13 bat urte-



rekin zaletu zen Telleria: "Ganaduaren zaku pentsuak altxatzen hasi nintzen eta gero erreka bilatutako harriak. Familian ez dut harri-jasotzaile-rik izan. Kontrakoak ziren gainera. Harri jasotzaileen giroa apustuarekin lotzen zuten, eta garai hartan beldurra zioten".

Harri jasotzeko zaletasuna inguruan zabaldu du Luis Mari. Berarekin aritzen dira, Aimar Irigoien eta Mari Jose Sardon Euskal Herriko txapelkunak eta bere hiru semeak ere ari dira harri jasotzen. Beñat, gazteenak, 12 urterekin 100 kiloko altxa du aurretik. •



BIZKER

IMPRESION DIGITAL

- Inprimategi digitala
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogoak etab.
- Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Erakusketa azokak, Ekitaldiak
- Kanpoko eta barruko errotiluzioak
Furgonetak, Kamioiak, Toldoak, Saltokiak, Museoak...

Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 61 - Lasarte-Oria



MUEBLES ZUBI

LASARTE-ORIA

Ondo pasa Gabon jaitan!

Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 • Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com



Maratoiaren urtea.- Urte olinpikoak, bisiestoak, maratoiaren urteak izaten dira Lasarte-Orian, azken urteotan behintzat. Aurtengoa horrelakoa izan da, luzea, antolaketa hasi zenetik 40 orduak giro bikainean burutu eta teloa itxi zen bitartean. VII. Euskararen Maratoiko balantze positiboa egin du Tta-kunek; inoiz baino jende gehiago hurbildu da plazara, bai ikusle moduan edo parte hartzeraz. Eguraldia lagun, hainbat herritar eta elkarte antolatutako ekitaldiaz gozatzeko parada izan genuen, *korritzeko modukoa* zen maratoiaz gozatu genuen. Takolok esan zuen, euskararen aldeko maratoian gehiago nekatzen dela, benetan 42 kilometroko laisterketa bukatu zuenenean baino, baina merezi duela. •



Zero Setteren une oparoa.- Lasarte-Oriako akordeo orkestak hainbat kontzertu eman ditu aurtun ere, besteak beste, Leonen eta Bavariako Straunbing hirian. Hiri honetako akordeo orkestaren 35. urteurrena ospatzeko kontzertuan izan ziren Zero Setteko partaideak uztaila amaieran eta bide batez, inguruko Munich edo Friburgo hiriak ezagutzeko aukera izan zuten. Orkestak 20 urte beteak ditu, ez da sortu berria eta berritzen jarraitzen du. Aurtun ikuskizun berezia prestatu dute, Erketz dantza taldea eta Alboka abesbatzarekin batera. Euskararen VII. maratoiaren bukaerako ekitaldian emanaldi bikaina eskaini zuten herriko hiru taldeek. •





Arropadenda eta osagarriak Eguberri on!!

Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 245760



Eguberri on!



SAAP-GAS

**Gas-instalazioak,
berokuntza eta iturgintza**

Ordutegia

9:00 - 13:00
16:00 - 20:00

**Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165
LASARTE-ORIA**

Alkasketa
Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362157
Fax: 943 366157

Bittegia
Errekalde pol. 33 • DOUGOTIA
(Lehenko Bianchi)
Tel.: 943 364403

Valentine

Tuki Sordak o partak
Rikarhea

Marke horien benetzaile ofiziala

GOL IRIGOYEN OPTIKA



Denda berriak dugu!

Eguberri on!!



Largoenea 1, Tel.: 943 371047

"Euskaraz ongi pasatzea lehenengo helburua zela argi izan dugu beti"

Alde batetik bestera dabilta Pirritx eta Porrotx egun hauetan. Larunbatean Usurbilen egon ziren eta eskainitako bi saioetan Oiardo frontoia bete zuten. Lasarte-Oriako pailazorik famatuenean lan pila egin dute aurtan. Ohikoa da Porrotx edonon ikustea baina oraingoan Pirritx eta bere atzean dagoen Aiora Zulaikarekin egon gara solasean.

Nerea EIZAGIRRE

Euskaraz eta alai hazi eta hezi nahi dugu. Bihurriak gara eta jolasak maite ditugu. Goxoak garenez, musuak banatu eta jaso egiten ditugu. Langileak ere bagara, eta era berean, festak maite ditugu. Horregatik atsegin dugu hainbeste zuekin kantatzea eta dantzatzea irakurri daiteke Pirritx eta Porrotxen web gunean.

Zer suposatzen dute aipatutako esaldiak?

Aiora Zulaika: Honek laburbiltzen du gure filosofia. Taldea duela 20 urte sortu zen Lasarten Eguberritan gutxi gora behera. Hiru irakaslek, herriko hiru mutil euskaltzalek, Olenzero-ren festa antolatu nahian.

Taldean sartu garenok, nik 10 urte daramatzat, argi izan dugu beti zela euskaraz ongi pasatzea lehenengo helburua.

Gero ikusiz eredu zaren heinean ba beste balore bezitzaileak, gizartearen pil-pilean dauden gaiak jorratzen dituzu eta azken urteetan gure lanak hori isladatzen du.

Lasarte-Orian hasi eta Euskal Herri eta kanpoko txoko askotara iritsi zarete...

Egia da Euskal Herriko mugak gaitunduta, Kuban egon ginela talde kide batzuk, baita Boisen, Idahon ere hango euskaldunekin. Esate baterako, abenduaren 5ean, ostirala, Durangoko azoka pil-pilean zegoenean Bartzelonako euskal etxean genuen saioa.

Pirritx: Baina gure eremua gaur egun Euskal Herria da, nahiz eta webean Galiziatik, Kanarietatik, Kataluniatik, Madrilik... toki askotatik jarraitzen gaituzten. Gu guztioi goxotasun pixka bat ematen saiatzen gara.

Las eta lan zabilzate orain?

A.Z.: Guretzat Gabonak dira maratoi luzea eta abia puntuan gaude, oraindik *Piratak* saioko gidoia eta dantzak asimilatzen.

Oso gustura gaude. Estresantea da datorkigun bolada, baina oso polita. Hilabete batean milaka pertsonen ikusiko gaituzte eta milaka pertsonen egongo gara.

Egia da oso absorbentea dela gure lana, asko eskatzen digu,



ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin baina horrek buelta ere badu, oso esker oneko lana da.

P.: Ea nork lana bukatzen duenean txaloak eta haurren muxuak jasotzen dituen. Horiek dira energia positiboa *en bruto*. Eta horrek ez dauka preziorik.

Nolako urtea izan duzue?

Eskerrik asko! Irri bukaera eman genion Aspanovaseko jaialdian eta urte oso berezia izan da.

Gai berezia hartu genuen, haur minbizia. Ibili gara, kimio botika dela eta, Mari Mototsi mototsak erorita eta ospitalea herriz herri eramaten. Ez genuen gaixoa isladatu nahi, baizik eta sendabidean zegoen

piratatxo alai.

P.: Aurtan, pixka bat horri jarraituz, herriz herri joango gara, pirata izan nahi dugu, Mari Mototsi mototsak hazi zaizkio, eta oraingoan benetako piratak izango gara, lehen piratetan jolasten ginen ospitalean eta orain piratak izango gara.

Zer suposatu du Aspanovasekin lan egiteak?

A.Z.: Egia esan badaramatzagu zazpi edo zortzi bat urte beraiekin harremanetan. Urtero, garai ezberdinetan, egun hauetan, uda partean, udaberrian edo noizik eta behin, taldekide batzuk txandaka joaten gara, hango haurrekin egoteko.

Bertan badaude bi langile eta hainbat bolondres eta urte hauetan guztietan, harremana estutzen joan gara, gaixoei, hauen familiarekin eta ekipa medikoarekin...

Eta hor harremanetan gine-la, duela bi urteko Gabonetan, Ane pirata deitzen diogun neska bat ezagutu genuen. Garai hartan 16 urte zeuzkan eta 13 urtetatik minbiziari aurre egiten ari da.

P.: Porrotx eta Mari Motots joan ziren aldi hartan. Porrotxek horrela dio beti, beraiek sartu zirela pailazoarena egitera eta Anek egin ziela pailazoarena. Gainera, *Maite zaitut* abestu zien Anek.



PESCANORTE S.A.

Mokadu goxoen txokoa duzue gurea!

Ondo igaro Eguberri jaiak!

LEIZOTZ poligonoa, D partzela
Andoain-Urnieta errepeidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 304300
Faxa: 943 304218
e-maila: pescanorte@euskalnet.net

JOKAR Y MARKINA ITURGINTZA

Ola kalea 12 • Tel.: 943 363932
LASARTE-ORIA

Eguberri on!

Disco - Burger TATI'S

Astearteetan, itxita.
Larunbata, igandea eta jai egunetan,
arratsaldeko
18:00etatik aurrera irekita.

Eguberri on!

Pintore Kalea
Telf.: 943 371605 - Lasarte-Oria

“*Ea nork lana bukatzen duenean txaloak eta haurren muxuak jasotzen dituen, energia positiboa da.*”

A.Z.: Eta ikusi zutenean haren begietako ilusia eta irribarra, gelatik atera eta Porrotx-ek esan zion Mari Mototsi, “Marimo datorren urtean mototsak erori-ko zaizkizu.”

Eta urte honetan guztian, harreman handia izan dugu, besteetan baino sendoagoa. Saiorik saio ibili dira gurekin Aspanovaseko kideak: beraien postuan informazioa emanaz, eta pultserak, zapiak, banderak... saltzen.

Ane izan da gure musa eta Mari Mototsek isladatu nahi izan duen hori.

P.: Baina Anez gain, pirata asko dago, piratatxo bihurri asko eta horien omenez ere egin dugu autengo *Piratak* saio berri hau, dagoeneko sendatutako piraten istorioa.

Zergatik piratak?

P.: Nork ez du amestu noizbait pirata izatearekin. Guk euskal pirata bihurriak izan nahi dugu.

Horretarako, hainbat ezaugarri izan behar dira, umoretsua izan behar da, irudimentsua, alaia, trebea, ilusioz eta magiaz betea. Eta hori erakusteko herriz herriz ibiliko gara eta lagunekin batera hainbat proba gaitunditu beharko ditugu.

Horretan piratsek lagunduko digute. Kattalin erretiroa hartuta itsasargi batean bizi den piratak, eta haren lagun handia, piraten eredu den Pattakon *daukanari kendu eta ez daukanari emon* pirata ere gure laguntzaile izango da.

Piratak CDan laguntzaile asko izan dituzue...

A.Z.: Gure lanetan asko oinarritzen gara elkarlanean. Duela bi urtetik *Aspanovas* elkartearrekin eta ospitaleko ekipo mediko hezitzaileekin harremana eduki

dugu eta Donostiako suhiltzaileekin ere bai. Guri gustatzen zaigu elkarlana, iruditzen zaigulako asko aberasten duela.

Adibidez, Pattakoni, bizitza eman dio Aitor Gorosabel, *Suta Gar* taldeko abeslariak. Oraingo diskoan ere asko parte hartu du. Urtero, Olatz Kortak lagundu eta parte hartzen du diskoetan, Mari Mototsi laguntzen dio abesten. Gero Joseba Tapiak ere urtero parte hartzen du. Horiek herrikoak. Baina ikusiko duzunez, jende askok parte hartu du.

Bitxikeri bezala, Jesus Cifuentes *Celtas Cortosekoak* abestu duela. Eta horrek frogatzen du nahi izanez gero egin daitekeela euskaraz eta pixka bat autengo mezua frogatzen du.

Zeren eta guk diogu eta Euskararen Maratoian horrela izan zen, guk badugula euskaldunok dugun altxor bat elkartrukatzeke eta ez dagoela kobazulo ezkutu batean eta lurpean ezkutua baizik eta ezpainetan duguna, denon eskura eta konpartitzeko eta euskara da bai, muxua da bai. Pixka bat hor lasarteoriarrok ere oso gogoa daukagun festa handi horretan frogatu zen eta guk ere herriz herriz zabaldu nahi dugun mezua eta izpiritua da.

Oso gustura gaude Xabier Zabala musikariak egindako lanarekin eta oro har parte hartu duten guztiekin. Ze aipatutakoak bereziak dira, baina badaude adibidez *Labrit* usur-

bildarra eta *Tapia* eta *Leturia* eta *Oreka TX*. Horiek guztiek eskerrak.

Piratak CDan Kaxianoren Itsasontzi baten abestia dago eta gaur egungo puntua eman diotzue...

P.: Eman diogu toke sanberoa, beno toke saltseroa.

A.Z.: Bururatu zitzaigunean alargunari deitu genion segituan.

Guk oso ongi ezagutzen dugun abestia da. Urtero saiatzen gara ezagunak edo herrikoiak diren abesti bat edo pareatzen, bilduma bat egiteko. Eta aurten esaten genuen piratak garenez, itsasoaren inguruko zerbait, itsasuntzia hartuta joango gara.

Eta honela sartu dugu Kaxianoren abestia. Iruditzen zaigulako guk oso ongi ezagutzen dugun abestia dela, baina gure haurrek ez.

Piratak ikuskizuna gainera bi urteetara zabaldu duzue, ezta?

A.Z.: Urtero joaten gara herri batzuetara, baina ezinezko zaigu beste hainbat herrietara joatea, txikiagoak direlako edo. Eta esaten genuen, “zergatik ez gara joango Leitzarara?” Leitzarrek gu joatea nahi dute, baina ez daukagu egunik gure egutegian.

Eta bi urte hartu ditugu, alde batetik herri gehiagotara iristeko eta baita ere proiektu berriak eta ideia berriak egin gabe ez gertatzeko, lana ondo asimilatzeke eta guretzat denbora hartzeko. Arrapaladan ez ibiltzeko.

Esperientzia berria da guretzako. Doble denbora izango dugu, doble herritara joateko.

“*Piratatxo bihurri asko dago eta horien omenez ere bada Piratak saio berria, sendatutako piraten istorioa.*”

Bada altxor bat mundu osoan euskaldunok bakarrik duguna.
Ez da ezkutuan dagoen horietakoa
Lurpean edo uharte bakarti batean gorderik dagoena
Ez da filmetakoa ere
Altxor hori egiazkoa da, eta gu denona da
Denok elkarrekin partekatzeke modukoa
Gainera, partekatuz bakarrik hartzen du bere benetako balioa.
Altxor hori ezpainetan dugu
Beti prest, emateko eta jasotzeko.
Edo biak batera, akaso
Asmatu al duzu dagoeneko zer den? Bai?

Bai! Muxua da, edo... Bai!
Euskara da. Edo biak batera.
Biak baitira partekatzeke
Biak ezpainetan, goxo
Zugandik gugana eta gugandik zugana
Gu ere beti prest gaituz
Eta zu?

Esaguzu euskaraz
Emaguzu muxu!





Goxokiak
Fruitu lehorrak
Olibak

Izan Eguberri zoriontsuak!

Geltoki kalea 6, behea • Tel.: 943 360863 • LASARTE-ORIA

ZUMABURU
K a r r o z e r i a

Eguberri on!



KOTXEEN KONPONKETA
TXAPA ETA PINTURA

Erribera kalea 8, atzealdea • Tel.: 943 365844 • LASARTE-ORIA

AIZPURUA
Pinturak

Eguberri on!



* Pintura plastikoak bereziki.
* Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Tel.: 943 362153
Zumaburuko Industrialdea
LASARTE-ORIA

Garcia
AUTOBUSAK

Eguberri on!



• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak.

• Bestelako zerbitzuak.

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUZ

Minbizia, familiaren ugaritasuna... egunerokotasunean dau- den gaiak jorratu dituzue zuen lanetan. Zein da hurrengoa?

P.: Familien eredu anitzen bil- duma egin ostean, sukaldarizta- ren gaia landu dugu.

A.Z.: *Elkar* argitaletxearekin egin dugun lan honetan, ez genuen egin nahi errezeta libu- ru soila. Amaia Diaz de Monas- terioguren dietistarekin eta Mitxel Murua idazlearekin batera egin dugu. Sukaldean disfrutatuko moduko liburu bat egin nahi genuen, baina baita ohean ere.

P.: Gure zaleek daukaten adi- narekin gustura hartzen dituzte ipuinak ohean. Beraz ez da apalean egoteko liburua, baizik eta erabiltzekoa.

A.Z.: Amaiarekin landu dugu elikaduraren gorpila, elikadura orekatu eta osasuntsua, baina era gozagarrian. Uste dugu gauza polita egin dugula, bai errezetekin, bai dibertigarriak diren ipuin osagarrieekin, bai argazki eta marrazkien disei- nuekin, -Julen Tokero izan da diseinatzailea eta Xabier Landa argazkilaria.

Errezetak guraso eta haurrek egitekoak al dira?

A.Z.: Bai, niri iruditzen zait gaur egun sukaldeak oso txikiak direla, -guk zortea dugu etxe zahar batean bizitzekoa eta sukalde ederra duena-, baina oso txikiak dira eta ez daude diseinatuak sukaldean aritzeko eta bizitza sukaldean egiteko.

Amaiak asko insistitzen zuen, Euskal Herrian sukaldean bizitza asko egon dela. Oso ona eta positiboa dela hori.

P: Eta sukaldean hartu irina, gurina, hartu osagaiak, eskuak zikindu, disfrutatu, bai guraso eta haurrak. Zerbait polita eta goxoa egin, eta tarte on bat



“ Iruditzen zaigu “Pirritx eta Porrotx sukaldean” liburu hezitzailea eta dibertigarria dela.

pasa. Orain, adibidez, neguan goxo-goxo.

Baina sukaldaritza ez da sukaldean ibiltzea soilik, ezta?

A.Z.: Horrela da. Erosketak egi- tetik, beno aurrea lista egitetik hasi behar da. Egun ez dugu lista egiten eta behar ez ditugun gauza pila erosten ditugu.

P.: Lista egin, merkatura jaitasi, erosi,... haurrekin egin daitez- keen gauzak dira eta haurrek ikasi beharrekoak.

Gero disfrutatu eta garbitu. Garbitzea ere sukaldaritzan atal bat baita.

A.Z.: Iruditzen zaigu didaktiko- tik asko duela liburuak, baina dibertitzeko ere asko daukara. Bateragarri da hezitzaile eta dibertigarri izatea.

Kamisetak, sudaderak, panpi- nak, liburua eta mantala... Zer da hurrengoa?

A.Z.: Beno mantala liburua- ren lehenengo aleekin aterata genuen. Doan banatzeko opa- ria? ba mantala. Zer hobe,... horrela zikindu beharra dauka- zu derrigorrez.

Panpinena ere iaz aterata genituen Pirritx eta Porrotxena,

aurten aterata da Mari Mototsena. **P.:** Haurrek asko esaten digute eta guk esaten diegu, koloretako ametsak egingo ditugu zue- kin. Ze guk saioak ordu eta laurden irauten badu, ia beste ordu eta laurden pasatzen dugu elkarri muxu ematen eta hitz politak esaten.

Horrek izugarrizko garrant- zia du eta nolabait panpinak dira gu gertu izateko.

A.Z.: Aspaldi-aspaldi ari ziren eskean eta iaz hartu genuen erabakia Pirritx eta Porrotx ateratzekoak eta ikusita Mari Motots denboraldi batean gure- kin izango dela, aurten Mari Mototsen panpina aterata dugu, ze haurrek asko maite duten pertsonaia da.

Kamisetak, jertseak,... hau- rrek oso harro eramaten dituz- te. Eta ez hain haurrek. Gure ikurra dira eta gu pozik.

Baina gure lehentasuna, balio erantsia duten produktuak dira: saioak, CD-Romak, DVDak, puzzleak...

Lehen bideo formatua zego- eneaz saioa grabatu eta listo. Baina orain DVDekin saioan zehar jorratu ezin dituzun eta zeharka lantzen dituzun hain- bat gai azaleratzeko aukera ematen dizu. Taldean erabakit- zen ditugu. Izan ere, hor bada- go mami handiagoa eta indar gehiago jartzen dugu beste honetan.

Hurrengoa, buruan zerbait dugu, baina orain *Piratak* lana- rekin ari gara buru belarri. Urtarrilean hasiko gara horretan pentsatzen.

Telebistan eta komunikabide- tan agertzen zarete, baina taula gainean nahiago?

A.Z.: Gure fuertea zuzenekoa da, telebistan bideoetan eta DVDetan bagaude, baina gure fuertea zuzenekoa da.

P.: Haurrek gu maite bagaituz- te, zuzenean ikusten gaituztela- ko, zuzenean ukitzen eta maite gaituzte eta guk beraiek.

Maratoian eta San Pedroetan, haur pila bildu zenituzten esate baterako.

P.: Bai, Euskal Herriko haurrek maitatzea oso polita da, baina zure herriko haurrak eta gura- soak eta aiton amonak hor ikus- teak, preziorik ez du. Zure aurrean eta zurekin.

Baina, amona Joxefinarekin egoteko astirik izango al duzue Gabonetan?

P.: Amona Joxefin prestatzen dizkigun gaztainak jateko har- tuko dugu astia.

Gu ez goaz lanera, gure lagunekin egotera goaz eta oso gustura gabiltza herriz herri sal- toka eta barrezka.

Hartuko dugu astia amona- rekin egoteko, Takolorekin, Joxepa behiarekin, Olentzerore- kin... Ze Olentzerori ere lagun- duko diogu opariak biltzen.

Ea Porrotxek ez duen trasta- keriarik egiten ze aurreko bate- an Pantxika astoari isatsa lazoa zelakoan korapilo bat egin eta ostiko galanta eman zion asto- ak. Baina jada Pantxika astoa Porrotxen laguna da berriro.

Zer eskatzen diote Pirritx eta Porrotxek Olentzerori?

P.: Nik eskatzen dizkio urtero gantxito berriak eta Porrotxek igerilekuan igeri egiten ikasi nahi du eta eskatu dio betaurre- koak eta txanoa, Pakitok bezala igeri egiteko.

Eta Olentzerok ekarriko al dio zerbait Porrotxi, hainbeste bihurrikeri egin ostean?

P.: Oso bihurria da, baina han- dia bezain zintzoa. Nik uste dut zerbait ekarriko diola. •



SUGATE



Sukaldeak

- *Gremioen koordinazioa*
- *Ordenadore bidezko diseinua*
- *Konpromisorik gabeko aurrekontuak*
- *Horma- armairuak*
- *Marka guztietako etxetresna elektrikoak*

Eguberri on !!



Beti lehenengo egunean bezala



Pintore kalea 5 • Tel./faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • e-maila: sugate@euskalnet.net

MAPFRE



Loyarte aseguruak S.L



CAJA MADRID ek delegatutako bulegoa

Eguberri on!

Geltoki kalea 8 • Tel.: 943 360268 • Faxa: 943 360546 • LASARTE-ORIA



LUIS CAR

autobusak

Eguberri on!



- Espainiako eta nazioarteko garratxo-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa: 943366316 Mobila: 629461897 **LASARTE-ORIA**



GRANJA ESPARZA, S.L.

Europako Batasunaren
araudiaren arabera homologatua;
10.526 NA zenbakia.

**Eguberri
on!**

- HEGAZTIEN ETA UNTXIEN BILTEGIA
- HEGAZTIEN ETA UNTXIEN HILTEGI INDUSTRIALA

Kale Nagusia 64
LASARTE-ORIA



GRANJA ESPARZA, S.L.

Tel.: 943 361349
Faxa: 943 361772



Fernández
e h u n a k

Eguberri
on!

Nahi edo
behar duzun
huraxe
aurkituko
duzu gurean!



Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

Zuregatik oso gertu!

Eguberri
on!

Zirkuitu ibilbidea 10 (gasolindegia atzean)
Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA

LASARTE

Eguberri on!

AUTOESKOLA

Kale Nagusia 5 (tarteak solairua) • Tel.: 943 370692 • LASARTE-ORIA

LIZARRI OPTIKA

Eguberri on!



Hipodromo etorbidea 8
(Anbulatoriaren aurrean)
Tel.: 943 366482 • LASARTE-ORIA

adats

Eguberri on!

ile-apaindegia

Geltoki kalea 3 • Mobila: 600 523988 • LASARTE-ORIA

barJalai

Eguberri
on!

Goizeko 5:30etik aurrera, zabalik

Pintxoak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Gosariak



Kale Nagusia 67
LASARTE-ORIA
943 372 740

Eguberri on!



Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366000 / 943 366084
Faxa: 943 364700 • 20160 Lasarte-Oria

Joxe Zapirain: Pisako Dorre

■ Italiako enbaxada eta kontsulatueta zein eraikuntza TVEn, Jose Maria Iñigoren saioan izan zen. ■ 2001ean

Biyak Bat elkarteak urrian omendu zuen Joxe Zapirain, Lasarte-Oriako Zaharren Etxea irekitzeko egin zuen ahaleginarengatik. Ez da dudarik Joxe Zapirain saiatua dela: edozertan ari dela ere, ez du erraz etsiko. Horri esker lortu zuten Zaharren Etxea irekitzea eta, orduan bezala, bizitza osoan hainbat ate jo ditu berari zuten eta bidezkoak iruditzen zitzaizkion egitasmoak martxan jartzeko. Hala ere, ahaleginak ez dira beti gauzatu, proiektu edota ideia asko eta asko bidean gelditu dira: Pisako dorrea ez erortzeko proiektua, hondoratutako ontzien petrolioia jasotzeko sistema, hondartzetan plastikozko poltsa zikinak jasotzekoa, edalontziak garbitzeko eskuila, erraldoien eskuei eragiteko mekanismoa eta abar luzea. Hori bai, denak txukun-txukun gordeta dauzka etxean, eta baita bere zein inguruko gogoan ere.

Jon ALTUNA

Pisako dorrea itxita egon zen 1990etik 2001era bitartean. Italiako Gobernuak itxi zuen erortzeko benetako arriskua zuelako. 1964an hasi ziren arduratzen, erori eta erabitsi egingo zela uste zuten, eta orduan hainbat adituk hainbat urtetan hainbat eztabaida izan zuten. Azore irletan egonkortzeko metodo onena aukeratzeko elkartu ziren ingeniari, matematikari eta historiagileak. Eztabaida horietan ez dakigu Joxe Zapirain lasarte-oriarraren proiektua eskura izango zuten ala ez, baina berak bidali egin zien. Eta ez hori bakarrik, gogor saiatu zen, 1973. urte inguruan bere ideia helarazteko: hartu-emanetan jarri zen Italiako enbaxada eta kontsulatu-tuekin, eraikuntza alorreko enpresa gizonekin,... Hala, 1973 urtarilean bere proiektua TVEko ikusle guztiei azaltzeko aukera izan zuen Jose Maria Iñigoren Estudio Abierto saioan.

Mitxelinen lana egiten zuen, seme-alabak hazten ari ziren, Lasarte-Oriako udala sortzeko egiten ziren bileratan ere parte hartzen zuen, eta tarteak Pisako proiektuari eskaintzen zizkion.

Proiektu egokia eta merkea zela adierazi zioten erakutsi zuen tokietan, baina ez zuen behar adinako laguntza edo bultzada jaso. Dena den, txosten batean txukun-txukun gordeta ditu Joxe Zapirain-ek burututako tramite eta gestio guztiak, bidalitako eskutitzak, telegramak, Pisako dorrearen krokis eta marrazkiak, egunkarietan argitaratutako albisteak,... eta baita bere asmoa azaltzeko erabiltzen zuen maketa ere.

Italiako Gobernuak dorrea salbatzeko laguntza eskatu zuen, ideia lehiaketa antolatu eta Zapirain musu-truk laguntzeko prest zegoen. Pisako dorrea egonkortu eta ez erortzeko azpian habe batzuk jartzea pentsatu zuen, eta bi aurre-proiektu egin zituen: lehenengo egitasmoan egitura metaliko batekin eusten zen dorrea lanek irauten zuten bitartean eta biga-

renean, aldiz, kable batzuen bidez. Bere ustez proiektu onak ziren. Konponbide sinplea, erraza eta merkea zen.

Lehen aurreproiektua pres-tatu eta 1973ko otsailean Pisara idatzi zuen Zapirainek, baina lehenengo aldi hartan ez zioten erantzun. Italiara menperatzen zuen Jesus Garmendia lasarte-rrak asko lagundu zion. Italiako Gobernuak Madrilen zuen enbaxadara idatzi zuten gero eta hauek lehiaketako oinarriak bidali zizkieten. Baldintzek zehazten zuten behin lanak amaitu eta gero ezingo zela ezer bistan geratu. Hori betetzen zuen Zapirainen proposamenak: Alde batetik dorreari eutsi eta bestaldean, zulatu, hustu eta dorrearen azpian habe horizontal batzuk jarri, hauen gainean beste bloke handi bat kontrapisu gisara,

dena tapatu, lorategi bat jarri eta ezer ez litzateke ikusiko.

Madrileko enbaxadakoei, Pasaiko kontsulatuakoei jarri zituen hartu-emanetan. Bestalde, Donostian Italiako kontsul-orde zen Marika Stani jaunarekin ere harreman estua izan zuen: gustatu zitzaion ideia eta prest zen Italiara laguntzeko. Baina, hainbat eskutitz eta bileraren ondoren, azkenean ez zen ezer atera.

Telebistan

Pisako dorrea egonkortzeko egitasmoa telebistan azaltzeko aukera izan zuen Zapirainek 1973ko urtariraren amaieran. Garai hartan programarik ikusienetarikoa zen Estudio Abierto-n, Jose Maria Iñigoren saioan. Elkarriketak 15 bat minutu iraun zuela gogoratzen du Zapirainek, Iñigoren aurkezpena oso polita izan zela, bere asmoa erakusteko aukera izan zuela, eta saioan Amparo Baró, garai hartako artista ezagunenetarikoa, izan zela.


Asteazken batean izan zen Madrilen. Hoteletik taxian eraman zuten TVEn estudioetara. Taxistak esan zien entxufaren bat izango zutela, gutxi zirela beraien suertea zutenak. Joxe Zapirain-ek aitortu zuen Donostiako alkatearekin hitz egin zela. "Horrela bai" esan omen zuen taxistak.

*“Gordeta
ditut egindako
gestioak,
eskutitzak,
dorrearen krokis
eta marrazkiak,
egunkarietako
albisteak,... eta
baita erakusteko
erabiltzen nuen
maketa ere.*





okerra finkatzeko ideia

enpresatan erakutsi zuen egitasmoa. ■ 1973. urtean, 300 urterako egonkortu zuten dorrea antzeko bidetik.



Pisako dorrea egonkortzeko egitasmoaren bi krokis eta azalpenak.



Dorrearen azpian hiru habe horizontal jarri eta gero tapatuta ez litzateke ezer ikusiko.

Dena den, kosta zitzaion telebistako platora iristea. Idatzi zion Jose María Iñigori, baina honek ez zion erantzuten. Donostiako alkate izan zen Felipe Ugarterengana joan zen behin, maketa hartuta. Erakutsi eta hark liluragarria zela esan zion. Anoetako Belodromoa egin berri zuten Donostian, eta garai hartan mundu mailan erai-kin aurrerakoiene-tarikoa zenez, laguntza eskatu zion Joxek, bere ideia Pisara bidean jartzeko. Ugarterek erantzun zion ez zuela horretan

laguntzerik, ez omen zen erai-kuntza arlokoa, baina, TVEko atekak ireki zizkion. "Iñigori idatzi niola eta hark erantzuten ez zidala jakitean momentuan bertan deitu zion. Larunbat eguerdia zen eta idazkariak ez zuen lortu Iñigorekin hitz egiterik, baina astelehenean hitzegiteko-tan geratu ziren". Astelehenean bertan deitu zioten berari Madrildik.

Eraikuntza enpresekin

Madrilen arkitekto batekin egoteko ere esan zion Ugarterek. "Bi buru txapel bakarrekin". Telebistan izan eta hurrengo egunean joan zen eraikuntza alorreko enpresa handi hartako buruarengana. Hark esan zion oso ideia ona zela, eraginkorra eta merkea. Baina Italiako enpresekin lana egiten zutela eta ezin zutela hara eurekin lehiaztera joan.

Beste enpresari batengana ere joan zen. "Hor daukazu ideia esaten nion nik. Baina zeren truke?"

“Dorrerik ez erortzeko azpian habe batzuk jartzea pentsatu nuen: lanek irauten zuten bitartean, lehenengo egitasmoan egitura metaliko batekin eusten zen dorrea eta bigarrenean, aldiz, kable batzuen bidez.

zioen berak. Ezeren truke, egiten bada ni pozik eta nitaz gogoratzen badira, hobe esan nion nik. Modestoezia zara erantzun zidaten". Haiekin ere hainbat eskutitz eta hartu-emanen ondoren ez zuen helburua lortu, baina Joxek ez zuen etsi.

Denborarekin, hasierako proiektua hobetu egin zuen: Lehen aurreproiektuan, obrak ziraute bitartean dorrea ez erortzeko hodian bidez finkatzea pentsatu zuen, baina bigarren aurreproiektuan jada kable bidez lotuta. 1984an bidali zuen bigarren aurreproiektua Pisara eta 1986ko uztailaren bukaeran jaso zuen Italiatik erantzuna: beste mila proiektutik gora jaso zituztela eta konponbidea erabakitzen ari zirela.

Antzeko proiektua

2000. urteko abuztuaren, Joxe Zapirain-en lagun bat, Juan Manuel Ruesgas, izan zen Pisan bertako dorrea ikusten eta plano bat atera zuen han zegoen plano batetik. "Harrituta esaten zidan, baina zure idearen antzekoa da eta".

Eusteko kableekin lotzearen ideia berdina zen, eta azpikoa ez zuen ikusi. Zapirainek bada-ki, Hidrogeno likidoa erabiltzen saiatu zirela zorua hozteko, "jakina, teknologia aurrera doa". Baina azkenean irtenbidea, kablearekin lotu eta dorrearen alde batean azpiko 38 metro kubiko lur kentzea izan zen. Adituek horrela 300 urterako egonkortu dutela esan dute eta 2001etik zabalik da berriro Pisako dorre okerra, bisitatu nahi dutenentzat. •



LAGUNAK Eguberri on!

Etxebizitzetako, komertzioetako... instalazio elektrikoak.

Geltoki kalea 6, behea • Tel.: 943 371077 • LASARTE-ORIA

MANI'S Eguberri on!

- Estentsioak
- Estetika
- Pedikura

Urko plaza 1-3, behea • Tel.: 943 361953 • LASARTE-ORIA

Antonio Benito Eguberri on!

Erregistratzeko kutxak eta pantaila taktila dutenak

Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA

Garmendia OIHALAK Eguberri on!

Ulsin kalea 11 • Tel.: 943 376947
20160 LASARTE-ORIA

MAYA Eguberri on!

Lentzeria Kortse-denda

Hipodromo et. 8 • Tel.: 943 363665

InmoGes Eguberri on!

Inmobiliaria

Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662



Joxe Zapirain beti saiatu da eguneroko arazoei erantzuten

Eguneroko bizitzan sortzen diren arazo edota zailtasunei aurre egiteko konponbideak bilatzen saiatu da beti Joxe Zapirain. Asmatu eta sortu dituen tresna guztien artean patentatu duen bakarra, edalontziak garbitzeko eskuila edo zepilloa izan da.

"Milagros izeneko neska batek, baso bat garbitzen ari zela izkinarekin eskuian ebakia egin zuela ikusi nuen Bar la Bodegan. Orduan asmatu nuen zepilloak basoaren barrua eta ertza garbitzen zituen. Eraman eta ikusi orduko erosi nahi zidan. Nik ezetz, beste leku batzuetan erakutsi nahi nuela. Bar La Cepara eramanez, eta han ere oso ona zela esan zidaten, patentatu egin behar nuela. Ba, patentatu nuen; paper guztiak eskuetan nituela Errenteriatik Tolosaraino fabrikaz fabrika pasa nintzen, eta inor ez zen produzitzen has-teko gauza izan. Tolosako batek esan zidan, "guk egitea badaukagu, baino aurrea gutxienez 1.000 pezeta jarri behar dira", eta orduan mila pezeta dirua zen". Azken finean inork ez zion zepillo hura merkaturatu.

Joxe Zapiraini jendearen apatia horrek ematen dio amorru gehiena, hau da, bere ideia edo proiektuekiko sarri somatu duen axolagabekeria. Askotan arduradunei zerbaitek eraman eta gogorik ez zuten erakusten. Horregatik, nahiago izaten zuen gauzak egitea, marraztea baino. Michellin-en, dena den, bultzatu eta saritu egiten ziren horrelako jokabideak. Askotan aritu zen gauza berriak asmatzen edota arazoei konponbideak bilatzen.

Behin makina bat azkarregi zebilen eta ez zuen lana ondo

egiten. Ordu erdian konpondu zuen: egurrezko bi puska jarri zizkion apur bat moteltzeko, eta denak harrituta utzi zituen.

Gero toki horretan ari ziren langileen kexa jaso zuen. Lagun horiek lehen 20 pieza egiten bazituzten gero 90. Lau aldiz lan gehiago zuten materialak ekarri eta egindakoak eramaten. "Beraz joan nintzen nagusiarengana eta makina oso ondo zihoala aitortu zidan. Nik langileei zerbaitek eman beharko zuela esan nion, eta hark, lana gutxiago egiten zutela erantzun: "orain, makinak egiten du". Lana materiala garraiatzen zutela azaldu nionean, berak onartu eta igo egin zien soldata langileei".

Erraldioen eskuak

Arduragabekeriaren beste adibide bat ere badu: eskuak mugitzen dituzten erraldioena. Festatan dantzan hankak bakarririk mugitzen dituzte eta berak mueltzen b a t z u e n b i d e z



"Jendeak nire ideiekiko sarri izan duen axolagabekeria eta apatiak eman dit amorru handiena."



Torre Canyon hondoratu zenean pentsatu zuen petrolioia jasotzeko modua.

"Prestige hondoratu eta gero, Ingurumen sailean proposatu nuen, baina kasurik ere ez zidaten egin."

erraldioen bi eskuak mugitzeko mekanismoa asmatu eta maketa bat egin zuen duela zenbait urte.

Lasarte-Oriako Udaleria eraman zuen eta bertan arduradunari erakutsi. "32 euro besterik ez zuen balio erraldioari hori jartzeak. Gustatzen zitzaizela esan zidan. Hilabete beranduago joan nintzen eta "aurten ez da egingo", bere erantzuna. Hurrengo urtean ere ez, eta horretan geratu zen. Ezker-eskuin mugitzen zituen eskuak eta Udaletxeko ordezkariak esan zidan ia ez zen posible aurrera eta atzera mugitzea. Orduan esan nion, agian bi mugimenduak egitea posible izango zela. Horrela zuek niri egiten ari zaretena egingo du erraldioak", korte de mangas bat, alegia.

Añorgan ere proposatu zuen. Zertxobait garestiago ateratzen zitzairen hango aluminiozko erraldioei jartzea, eta berdina. Gustatu-gustatu zitzairen baina ez zuten aldatu.

Gero, Bilbon Marijaiaren eskuak mugitzeko proposamena egin zuen baina han ere ez zen aurrera atera.

Marea beltza

Itsasoan petrolio-ontziek istripua izan eta galtzen duten petrolioia jasotzeko sistema bat ere asmatu dauka, oraindik inon erabili ez dena, baina, bere ustez, oso eraginkorra dena.

1967ko martxoan Ingalaterran 120.000 tonelada petrolio zaramatzen Torre Canyon ontzia hondoratu eta hondamen ekologiko handia izan zen.

Orduan, duela 40 urte, asmatu zuen petrolioia hondartzara iritsi baino lehen biltzeko sistema: olioia ura baino lodiagoa denez ur gainean egoten da eta itsasontzi zahar batean garabi beso bat jarri beharko litzate-

ke ur-gaineko petrolioia jasotzeko.

2002ko azaroan Prestigeren istripua gertatu zenean, euskal arrantza-ontziak ibili ziren petrolioia jasotzen. Aldiz, Zapirainek proposatzen du, ontziak zikindu gabe, txapapote hori plastikozko igerileku handitan biltzea, hauek betetakoan plastikoko batekin tapatu eta arrastaka portura edota hustu behar diren tokira eramanez. Bere ustez, oso modu garbia, eraginkorra eta sinplea da: erraz lortu daitezke itsasontzi zahar bat, garabi bat eta plastikozko piztina.

Prestigerena gertatu eta gero Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailean proposatu zuen, baina kasurik ez zioten egin.

Ur gazidun igerilekua

Duela 35 urte beste egitasmo bat aztertu zuen Donostiako Udalarrekin. Loiola auzoan Urumea errekararen ubidea aldatzea zen kontua, erreka trenbide azpitik bestaldera pasa eta irabazitako lurretan hainbat gauza eraiki, besteak beste, zezen plaza berria eta ur gaziarekin beteko zen piztina. Marea igotzean aldatutako litzateke ura, baina nahi izanez gero, ez legoke zertan aldatu, hala ura beroago mantenduko litzateke. Hau ere horretan gertatu zen, proiektuan, besterik ez.

la 80 urte ditu Joxe Zapirainek, eta oraindik badarabiltza buruan kontatu nahi ez dituen zenbait ideia. Erretiratu zen, baina ez du atsedetik hartu. 14 urtetatik ari da lanean, zenbait lantegi pasa zituen, "hobetzen beti", azkenean Mitxelinen mekaniko hasi eta delineaatzaile bukatu zuen arte. Betidanik egin ditu bere proiektuen marrazki eta maketak. Gaztetxoa zela, lan egitearekin batera, Donostiako Arte eta Ofizio eskolan ikasi zuen delineaatzen. •

M. Berasategi

Kafeak

B¹⁹⁶¹

Betri dago aukera
kafe on bat hartzeko

INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Incomán

Eguberri on!

☛ Ikerlanak, elektrizitatea aurrezteko moduez.

☛ MIC transpalak.

☛ MIC metagarriak.

Antxota kalea 2 • Tel.: 943 373198 / 943 373153 • Faxa: 943 365935 • LASARTE-ORIA



Iñigo Artola, Mikel Elizegi aurkezle goizuetarrarekin, Euskararen VII. Maratoian.

Iñigo Artolak ehizatutako altxorrak.-

Jakina da ehiztaria dela Iñigo Artola, beti dago adi non "famatuak" harrapatuko. Aurten ere bere koadernoak telebista edota farandulako pertsona ezagun xamarraren sinadura eta irudiz bete ditu. Argazki kamara eta bolalumaz armatua, pieza parean ikusiz gero nekez egingo dio ihes. Irudiotan ikus daitezke Iñigok aurten eskuratutako altxor batzu: Mikel Elizegi aurkezlea eta Iker Galarza aktorea. Urte oparoa izan du eta pozik dago. •



Naizroxa Pasai Donibaneko taldekoek posterra oparitu zioten denen sinadurarekin.



Beste irudi honetan, telebistako "Vaya Semanita" saioko Iker Galarza aktorea topatu du Iñigo Artolak.

AINNORSA



- Beroaren isolazioa txapan, aluminioan...
- Sabaiko eta makinaren saletako intsonorizazioa
- Airearen kanalizazioa txapan eta climaverrean
- PLADURREZKO tabikeak
- Tabernetako intsonorizazioa

Eguberri on!

Oria etorbidea 8-10, 41 pabiloia
Tel.: 943 366279 • Faxa: 943 372717
LASARTE-ORIA



Geltoki 2 • Tel.: 943 365846 • LASARTE-ORIA
Idiazabal kalea 32 • URNIETA

DANTA ONA JATETXEA



Eguberri on!

- Euskal Herriko sukaldaritza.
- Jangela egoki-egokiak, ezkontzak, jaunartzeak eta beste edozer ospatzeko.
- Etxeko espezialitatea: parrillako arraina eta haragia.

Tel.: 943 365347 / 943 361731 / Faxa: 943 366020
ZUBIETA (Hipodromoaren ondoan)




 Denda: Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 363147 • LASARTE-ORIA
 Tailerra, iturgintza, igeltserotza:
 Ugaldea polig. 8-1 (Lehenko Moulinex) • Tel.: 943 361752
 linterneriaillarreta@yahoo.es

Eguberri on!

Iturgintza
Igeltserotza
Berokuntza
Gasa


Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak, S.L.

Haur guztiok
Eguberri jai zoriontsuak
izan ditzazuela!

 Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
 Tel.: 943 132893 / 830808
 Mobila: 656 782999



Oriako Karmengo Amaren kaperan abenduaren 6tik dago jaiotza ikusgai. Igandeetan 10:30etatik 12:30etara, kaperara hurbiltzen den orok ikusi ahalko du.

Lasarte-Oriako jaiotzak ikusgai daude

Eguberri giroa dago Lasarte-Orian. Argiak piztu zituzten, EHPa ireki da gaur eta garaiko jaiotzak ere ikusgai daude dagoeneko.

Jaiotza erraldoia

Urtero legez, Danok Kideko egoitzan Alejandro Romok moldatzen duen jaiotza bikaina ikusteko aukera dago: Estalpea, Egiptoko piramideak, Alejandroriako itsasargia, Herodesen gaztelua, Jesus haurraren sehaska kulunkatzen, artzainak dantzan, emakumeak arropa garbitzen...

Alejandrok esan digunez, "hilabete eta erdi daramagu prestatzen. Gauza berririk ez dago. Hala ere, garrantzia handirik ez zuen pertsonaia, kaka egiten zegoen artzaina nabarmendu nahi dugu. Haurrei grazia egingo die." Ea aurkitzen duzuen!

Jaiotza atzo ireki zen eta Errege egunera arte egongo da ikusgai 17:00etatik 20:00etara eta, jai egunetan, eguerdian ere bai, 12:00etatik 14:00etara.

Karmengo Amaren kaperara

Urrun dago askorentzat, baina Karmengo Amaren kaperako

jaiotza ere ikustekoa da. 40 irudi ditu, horietako asko Manolo Urdanpilletak eskuz eginda-koak, eta horietako batzuk mugimendua dute gainera.

Jaiotza urtarilaren 11ra arte egongo da ikusgai. Igandeetan dago zabalik 10:30etatik 12:30etara bitartean.

Komentuko jaiotza

Nahiz eta komentuko jaiotza sinpleena izan, edozein momentuan ikus ahal den bakarra da. Jesus, Maria, Jose, behia eta astoa. Garrantzizko besterik? •



Beste urte batez, Alejandro Romok jaiotza erraldoia prestatu du Danok Kideren egoitzan, atzo ireki zituen ateak eta Errege egunera arte egongo da ikusgai.



Jolastu, irakurri eta gozatu euskaraz

Urte sasoi honetan, urtean zehar baino opari gehiago erosteko ohitura ezin uka daiteke. Seme-alabei edo inguruko euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontutan hartuta, Euskal Herriko 111 Udala eta Mankomunitateetako Euskara Zerbitzuek Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu eta kaleratu dute, beste urte batez. Euskal Herri osoko teknikariek osatutako lantaldeak burutu du lan hau, "euskara normalizatzeko egitasmoen inguruan, egitasmo hau Euskal Herri mailako teknikariak elkarlanean aritu garen bakarretako bat da".

Euskarazko produktuen eskaintza zabala

Adin tarte guztientzako hamaika erreferentzia biltzen ditu edizio berri honek. Zehazki, paperezko edizioan 317 produkturen berri jasotzen da eta interneteko edizioan berriez, argitaletxeek eskaintzen dituzten produktu guztien erreferentziak ikus daitezke.

kasik 400 denetara. Internetez katalogoa ikusi nahi izanez gero, www.katalogoa.org web gunean sar zaitezke eta nahi izanez gero ere katalogoaren PDF dokumentua ere jaitsi dezakezue bertatik. Katalogoan jasotzen diren produktu horiek guztiak jada merkatuan salgai daude. Beraz, haue-

tako baten batean interesa izanez gero, ohiko saltoki eta liburutendetan eskuratu ahal izango dituzue.

Euskarazko Produktuen Katalogoaren 11. edizioan kaleratu diren produktu berriak atal desberdinetan bereizi dituzte: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatikako produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Adinaren arabera banaketa ere egin dute zenbait ataletan. Azken finean, ekimenaren arduradunek katalogo hau gurasoentzako lagungarri gertatzea nahi dute, "etxeko haur eta gaztetxoak euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko edo gozatzeko aukera izan dezaten".

Aurten 11. edizioako 267.000 ale inguru banatu dituzte Euskal Herri osoan, iaz baino zazpi mila katalogo gehiago. "Urtetik urtera zabalduz doa katalogoa, alde askotatik begiratuta ere: produktu gehiago, ale gehiago, antolatzaile gehiago eta baita banatzen den eremu geografiko zabala ere".



VINA del MAR
TABERNA-KAFETEGIA

Eguberri on!

Etorri gure jaki goxoak probatzera

Ola kalea 2 • Tel.: 943 362768
20160 LASARTE-ORIA

IRULEGI MILAR

- Etxeko tresna elektrikoak
- Telebista eta DVDak
- DVD-Bideo kluba
- ...

Beko-Errota 2
Tel.: 943 364450
20160 LASARTE-ORIA

Eguberri on!

30 urte zuekin...

Ile-apaindegia Estetika

Blas de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254 • LASARTE-ORIA

Maite Erkizia

AMIRI s.l.
KARROZERIA

Eguberri on!

Zirkuitu ibilbidea 12
Lasarte Oria
Tel.: 943 372996

MAIDER

Taberna-Jatetxea

Eguberri on!

- Asteburuko menu bereziak
- Eguneko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak

Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA



URPA

AUTOBUSAK

Eguberri on!



- Luxuzko autokarrak.
- 19 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Autobus literadunak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: auto-urpa@euskalnet.net

LOS SERRANOS

Eguberri on!

IGELTSEROTZA • ITURGINTZA

- Gas-instalazioak, berokuntza eta pintura

Erakusketa: Zumaburu kalea 5, atzea • Tel.: 943366681 • LASARTE-ORIA

Harategia • Urdaitegia



EGUBERRI ON!

Narao
Patxi Larrañaga
Ana Iparraguirre



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 372668 • Faxa: 943 370737



Maider Odriozola

1. Pertsonalki ez naiz kexatuko, ona izan da. Lan finkoa daukat, baina oraintxe esan didate kreditua izugarri igoko zaigula hurrengo urtean. Hala ere, ez gara kexatuko.

2. Hainbeste gauza eta aldi berean ezer ere ez. Oso ondo gaude. Eskatuko nuke, gu baino okerrago dagoen jendea hobeto egon dadila.

3. Kezka hor dago eta telebistan kotiloietarako sarrerak agortu direla ikusi dugu. Bakoitzak ikusi beharko du, duen egoerarekin bere dirua zertan eta nola gastatzen duen. Gabonetan eskuzabailagoak izaten gara eta dirua errazago gastatzen dugu. Urtarrilean berriz, gerrikoa estutu beharko dugu.

2008tik 2009ra jauzia

Oparotasunaz baino zailtasunez hitzeginez amaitu dugu 2008a eta jakin nahi genuke, nola ibili diren herritarrak urte zaharrean, eta zer nolako itxaropenak dituzten urte berriari begira. Gorabehera ekonomikoek eraginik izango al dute gabonetako ospakizunetan?

1.- Zer moduzko urtea izan da 2008a?

2.- Zer eskatzen diozu 2009 urte berriari?

3.- Nabarituko al dira eguberrietan aurreikuspen ekonomiko ilunak eta herritarren kezak?



Gemma Urruzola

1. Etorriko dena baino hobea izan da aurrekoa eta datozen urteetatik hoberena. 2009 eta 2010 urteak esaten duten bezalakoak izango badira, 2008 oso ona izan dela uste dut.

2. Gutxienez aurrekoa bezain ona izatea, ez da gutxi. Perspektibak nahiko txarrak dira, langabezia, krisia... Komunikabideetan krisiari buruzko iritziak entzun ditugu, baina langabezia etxean sartzen denean, orduan bihurtzen da gauza serioa.

3. Ez dakit oso mentalizatuta gauden. Langabezia ez bada etxean sartu, berdin jarraituko dugu gastatzen. Hala ere, denok gerrikoa estutu beharko dugula iruditzen zait.



Josema Cuervo

1. Orain arte nahiko ondo joan da. Ikusi beharra dago krisia dela eta nola bukatzen den urtea eta nola datorren 2009a.

2. 2008a baino okerragoa ez izatea. Ea gauzak apaldu, krisia baretu eta aurre egiten diogun krisi honi.

3. Krisia nabaritzen da, batez ere zenbait sektoretan. Egunerokoa nabari da jenderen kezka, krisia hor dagoel. Dendetan jende gutxiago ikusten da, jendeak gehiago begiratzen dio diruari. Eta gehiago begiratu beharko diogu.



Maria Luisa Arsuaga

1. Niretzako aurreko urteak bezalakoa izan da aurtengoa. Agian, aurtengoa kontu gehiago izan dugu, badakizu, krisia eta.

2. Gutxienez, aurtengoa bezalakoa izatea espero dut. Hobe balitz hobe, baina.

3. Uste dut erosketak egiterako garaian begiratzen diogula. Datorrenarekin ez dugu hainbeste gastatzen. Hala ere, dendetan sartzen zara eta jendeak berdin erosten du. Nik ere gauzak erosi behar izan ditut, umeentzat, batentzat eta bestearentzat. Ez dakit dirurik geratzen den opariak erosteko, baina hala ere gastatu egin dugu. Hori da arazoa.



Manuel Iturrioz

1. Bukatzen ari den urtea nahiko ona izan dela uste dut.

2. Datorren urtea gutxienez aurtengoa bezalakoa izan dadila, hori nahiko nuke. Baina, oso zaila ikusten dut. Krisi ekonomiko handia dagoela somatzen da eta langabezia handitzen ari da, gauza txarra da hau.

3. Uste dut baietz. Eguberri hauetan nabarituko dugu krisia eta hurrengo urtean oraindik eragin handiagoa izango duela uste dut.





“Gau multimusikalaren ideia oso ona iruditu zitzaidan hasieratik”

Aritz Usandizaga, hernaniarra, Aritz Sound System moduan ezagunagoa, ia astebururo aritzen da, han eta hemen, deitzen dioten tokietan musika jartzen. Ondo ezagutzen du Lasarteko gau multimusikala sortu zenetik kale egin gabe urtero parte hartu baitu ekimenean. Oso ideia ona iruditu zitzaion hasieratik. Larunbat gauean musika beltza jarriko du Jalgi Kafe Antzokian.

JON ALTUNA

Kanpotik dator Aritz Sound System Gau Multimusikalean parte hartzeko, Hernanitik, baina ia etxekoa dela esan daiteke hasiera hasieratik, lehen aldiz antolatu zenetik, ezagutzen du eta ekimen berezi hau.

Zazpigarren aldiz egongo zara gau multimusikalean, zer da zuretzat ekimen hau?

Idea oso ona iruditu zitzaidan planteatu zidatenetik. Pentsatu nuen Lasartek behar zuela horrelako zerbitzu. Gauean giro gutxi egoten zela komentatzen zen, lasartearrak kanpora joaten zirela asteburuetan, Donostia ala Hernanira. Beraz izan zitekeen saiakera on bat bertako jendea gelditzeko.

Horretaz aparte estilo ezberdinak taberna ezberdinetan eskaintzearena oso ideia ona iruditu zitzaidan. Beti defenditu dut aniztasun hori, musika zale garenok behar dugu horrelako aniztasuna musika aldetik: batera edo bestera joan eta musika bat edo

bestea entzuteko aukera edukitzea. Eta bertan musika zaletu edo adiktoa den norbait baldin badago, ba hobeto, CD, diska edo beste zerbitzu trukatzeko,...

Gazteek beraiek sortutako ekimena izanda gainera, askoz ere hobe. Gaur egun instituzioen aldetik egiten dira gauza asko eta gazteak hartzaile pasiboak izaten gara askotan.

Kasu honetan dena da oso positiboa, bertako gazteek sortutako zerbitzu izatea, beraien artean antolatu, jendearekin hitz egin, afaria prestatu,...

Gazteen festa handi bat baino gehiago da, beraz?

Bai ez da bakarrik festa, beraiek ere parte hartzen dute antolaketan.

Egia esan egitarau zabala antolatu dute Txorimalo kolektibokoek, meritua dute gazte hauek, ezta?

Bai zalantzarik gabe. Errazena da kezuka aritzea beti: "ez dago ezer herri honetan" edo "a zer Udala daukagun" esanaz, eta zailena da lanean jarri eta zerbitzu antolatzea.

Aurten oraindik luzeagoa da egitaraua, Okendoko Karpa bat ere jarri dute,...

Bai, beste pausu bat eman nahi izan dute, kontzertu batzuk karpan izango dira eta egitaraua egun osokoa, ez bakarrik arratsalde eta gauekoa.

Jalgi-n arituko zara zu, zein eratako musika jarriko duzu?

Beti jartzen dudana, musika beltza deitzen diot, eta horren barruan estilo oso desberdinak, erritmo lasaigoak hasieran eta gero jendearen arabera, erritmoak azkartzen joango dira, reagea, rapa, funkia, afrikarra, brasildarra,...

Musika arloan zabilta lanean, ...

Gauza asko egiten dut, musikaren inguruan gehienak: musika jartzen dut ia astebururo deitzen didaten lekuetan, soinu ekipoa-ekin ere ibiltzen naiz, antolatzailea ere banaiz, beraz bi aldeetan nago, parte hartzaile eta antolatzaile bezala, eta kazetari moduan idatzi eta irrat- saioak egiten ditut. Molotoff irratian azken zortzi urtetan ari naiz, Info-7n ere badaukatu saioa

eta Gazte Zulo-n, Entzun aldiz- karian eta Garako Kaleidos-en besteak beste disko aipamenak egiten ditut.

Ttakuntronik, Jam saioak, Xpresion zirkuitua, ... Lasarte- Oriak zerbitzu berezirik ba al du?

Badago mugimendu bat, ez agian oso masiboa, baina horrela izaten da herri gehi- enetan. Talde txiki hori bere mai- lan mugitzen da eta beste kontu bat da gero horrek zer nolako erantzuna daukan.

Beste ezer ba al duzu esateko edo gehitzeko,...

Badaukatu kritika bat egiteko. Gau musikalean alde ona hasieran gazteei buruz aipatu- takoa da, beraiek antolatzen dutela, euren ekimena dela... baina badaude hobetzeko gau- zak. Gehiago zaindu beharko lukete parte hartzen dugunok- in harremana. Elkarteko afaria, denak batera, oso ondo dago,.... baina, kasu batzutan musika jartzaile joan direnekin azpiegitura aldetik gauzak ez dira zaindu: jartzaile bakoitz- a-rentzat taberna bat aukeratu eta musika jartzen zuenaren eta tabernakoen esku geratzen zen gauza. Azkenean ez batak ez besteak ez zekiten besteak zer behar zuen eta nola antolatu. Edo musika jartzaile joan, eki- porik gabe aurkitu eta azkene- an musikarik ezin jarri. •

Zazpigarren Gau Multimusikalaren Egitaraua

ABENDUAREN 27, LARUNBATA

11:30ean kaleko gunearen eta karparen irekiera

-Haurrentzat **musika eskola**. Ins- trumentuak jarriko dira haurrek taldean jo dezaten, Kitarrak, bateriak, batukadako tresnak,... Libre da nahi dena eramatea ere.

-**Graffiti erraldoia** margotuko dute Gasteizko artista batzuek.

-Herri mugimenduaren materia- laren eta bigarren eskuo pro- duktuen **azoka**.

-13:30ean **Musika Kalejira**. Edo- nork hartu dezake parte nahi duen musika tresnaz. Herria musikaz betetzea da helburua.

-14:30ean **herri bazkaria**: baba- rrun jana, txorixo, saiheski, aza,... eta postrean arroz esnea. Sagardo eta ardoa edateko, txar- telak 10 eurotan salgai taber- netan, ostirala, 26ra bitartean.

-16:30ean Kontzertua. **Apurka** taldearen azken aurreko kont- zertua. Musika goxoa.

-17:30ean Jalgi kafe-antzokiko kontzertuen hasiera:

- **Yaw** donostiarrak, Piraten maketa lehiaketan bigarrenak.

- **Sortuz**, Agurainen euskaraz abesten duen lehen taldea.

- **Garagardo Gura**, Gasteizko zortzi lagunak ska erritmoak.

-18:00etan Sustrai tabernan bi emanaldi izango ditugu: **Detri- tos** eta **Free Birds**.

-18:30ean Okendoko gunean **Berto Rap saioa** izango dugu. Betetik, **Barakaldoko 121 Crew** rap taldea eta bestalde bertso- laria, besteak beste, **Unai Muñoa** edo **Xabier Silveira** betiko ohitura eta joera berrien arteko elkartrukea eginez.

-19:00etan Obelix tabernan bi talde izango ditugu: **The Last Strength** arrasatearrak eta **The Crackers** beasaindarrak.

-19:30ean Xirimiri elkartearen beste bi emanaldi: **Ostikua Potroten** lasartearrak eta **Gargantas Desgarradas** andoain- ordizarrak.

-Arratsalde osoan Ilargi tabernan **Big Time Sound System** lasarte- arren dantzatzeko erritmoak.

-20:00etan Udaberri tabernan **Tuestate de Tranks + lagunak**

-Arratsaldeko 20:30etatik aurre- ra, **afaria** Okendon: otartekoak Karpako jantokian.

-22:30ak aldera, gaueko kont- zertuen hasiera:

-**Musikberberena** gasteizarrak. Erromeria, 80. hamarkadako punk-eko bertsio eta kantuekin.

-**Hurto** lakabatearrak. Hirugarren aldiz Lasarte-Orian.

-**Skatu** Iruñeako Ska-kalipso doinu berak.

-Goizeko 3:00-aldera, **GRASS- MANN** disko jartzailea.

-Jalgin gau osoan zehar **Aritz Sound System**.

ABENDUAREN 28, IGANDEA

-Goizean, **erromeria**.

-Arratsaldeko 18:00etan **Makulu Ken** taldea Okendoko gune estalian, jaiari amaiera emateko.



Sarrera 3 euroakoa da eta Zaballosek aipatu zuenez, "Nahiz eta ohituraz helduak diren kotiloira joaten direnak, adin guztietara irekia dago." •



Ttakun Kultur Elkarteak ongi-etorri berezia prestatu dio Olentzerori

Urtero bezala, Olentzerorri abenduaren 24ean etorriko da Lasarte-Oriara. Etkez etxe opariak uzten hasi aurretik, herrian behar bezalako ongietorria egingo zaio.

Ongi-etorri hori prestatzen hasita daude herriko hainbat talde eta elkarte. Batzuk kalez kale abestuko dute, besteak baserrietako buelta egingo dute... Ttakunek berriz, jaialdi bat antolatu du arratsaldeko 16:45etik aurrera Okendo plazan.

Amalur eskolako lagunak izango dira jaialdiari hasiera

Ttakun Kultur Elkarteak aurtengo Eguberrietako hainbat ekitaldi prestatu ditu. Aurten ere, urteroko moduan, Olentzerori ongi-etorria antolatu du, eta horretaz gain, Gazte Klubeko kideei zuzendutako gazte aste ederra ere antolatuko da.

emango diotenak. Ondoren, *Amaraun* klubeko Lur, Marko eta Eztiren saioa ikusi ahal izango duzue.

Olentzerori sorpresa bat eman nahi zaio, beraz, antolatzaileek haur eta helduak animatu nahi dituzte parte hartzera.

Horretarako, plazara musika instrumentu bat eramatearekin nahikoa da. Bertan, *Batukadako* kideek kanta bat jotzen erakutsiko digute. Eta ondoren, *Amaraun* ludoteka-ko lagunak prestatutako gabon kantak abestu eta Gazte Klubekoek beraien

erritmo berritzaileekin liluratuko gaituzte.

Olentzerori ongi-etorria egingo zaio, 17:45ean. Olentzerorri menditik dator. Behin eseri eta deskantsatu ondoren, Lasarte-Oriako haurren eskutitzak jasotzen hasiko da.

Gazteentzako ekitaldiak

Gazte Klubeko lagunak oporretan daude eta ekintza desberdinak prestatu ditu Ttakunek gazteentzat.

Kotiloia egiteko aukera izango dute abenduaren 31ean, baina egunez, 16:00etatik 18:30era.

Gazte astea, berriz, abenduaren 29, 30 eta urtarrilaren 2an izango da, ordutegi berean eta herrian zehar laburmetrai bat grabatzeko aukera izango dute. Gazte Klubeko edozein lagunak parte hartu dezake honetan.

Asteari bukaera ezin hobea emateko urtarrilaren 3an iteera bat prestatu dute. Bertan gazte klubeko gazteek gain udako txokotan ibilitako 9 eta 12 urte bitarteko haurrek ere parte hartu dezakete. Izena ematera Ttakunetik pasa behar da abenduaren 26tik aurrera. •

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK

MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...

*MERKATARITZA

*BIZITZA ETA ERRETIROAK

*OSASUNA

*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

*ERANTZUKIZUN ZIBILA

*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK

*INBERTSIOAK

*PYMEAK...

Eguberri on!

Ganbo Kalea 1 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxe: 943 372413



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxe: 943 372413

Idiazabal kalea 30.URNIETA
Tel.: 943 554699



Eguberri on!

Larre

- Eguneko menua
- Asteburuetako menua
- Tradiziozko sukaldaritza
- Etxeko postreak

Larrekoetxe bidea 10
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012/ 943 360480

MANOLI estankoa

Eguberri on!

Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA



- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA



ISU

EGUBERRI ON!

Orain diru-laguntzak ematen dituzte,
1.650 euro arte,
leiho berriak jartzeagatik

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222

Riojanos

Erreategia

Eguberri on!



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA



UGARI

Supermerkatua

**Igande eta jai egunetan
ere goizez irekita!**

EGUBERRI ON!!

Ola kalea 6 behe • Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 21 60



Urtero bezala, Juan Bereziartuak erre zituen gaztainak danbolinean.



Emakume kuadrila bikaina izan genuen taloak egiten, nahiko lan egin zuten!

Eguberri on!



TXARTEL • TXOKO
Jutetxea
Luciano Betelu

- Garaiko jakiak
- Eguneko menua
- Kartako eskaintza

Zirkuitu ibilbidea 1 • Tel.: 943 370192 • Lasarte-Oria • Gipuzkoa






Txistorrarekin, txokolatearekin edo gaztarekin betetako talo goxoak dastatu ahal izateko ilara luzea sortu zen.



Amalur eskolako haur eta gazteek ederki girotu zuten plaza goiz osoan zehar.



Urnieta bideko Arteagatarren Telleria baserrikoa zen aurtengo zerrama.

Giro bikaina Santo Tomasetan

Asteburuan egin duen giro bikainak lagunduta, giro ezin hobea izan zen igande eguerdian Okendon, Santo Tomas egunean. Ttakunek txistorra banatu zuen talo, sagardo eta gaztain erreekin batera.

Patxi Etxeberria, Ane Labaka eta Beñat Iguaran bertsolariak saioa eskaini zuten eta ondoren Amalur trikitixa eskolako musikariek giro bikaina jarri zuten. Ez zen falta Santo Tomasetan ohikoa den txerria.

Eguerdia aldera, Amalurko txistulariek lagunduta, Erketeko dantzariak eta inguratu ziren guztiek muxikoak dantzatu zituzten. Giro eder horrekin, askok eta askok kostata alde egin zuten bazkaltzera. •



Patxi Etxeberria, Ane Labaka eta Beñat Iguaran izan genituen kantuan. Merezitako txaloak jaso zituzten hauek ere!



Ederki harrotu ziren taloak plantxan jarritakoan, ongi eginak zeudenaren seinale.

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@iditel.com

Eguberri on!

EGUBERRI ON !!

INQUIETUD
Neurriak 36tik... 60ra

943 370 290
Nagusia 49



Egunero

Erakusketa

PILAR SOBERONEN ikasleen margoak ikusgai. Jalgi kafeantzokian, egun osoan.



Erakusketa

KURTSO AMAIERAKO erakusketa Emakumeen Zentro Zibikoko ikasleek egindako lanak ikusgai: boliloak, eskulanak... Emakumeen Zentro Zibikoan, abenduaren 15etik 30era, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara.

Astelehena, 22

Haur parkea

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra Michelingo Udal Kiroldagian. Orduetgia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Haurrek sarrera doan izango dute eta helduen euro bat. Michelingo Udal Kiroldegia, 17:00etan.



Eskulanak

LOREEKIN ZENTROAK prestatzen ikasteko aukera. Ormazabal loredendakoek emandako ikastaroa. 15 euro balio ditu. Ikasle bakoitzak zentro bat eramango du egin. 15:30etik 16:30era Emakumeen Zentro Zibikoan.



Kontzertua

DANOK KIDOKO IV TOPAKETA musikalen barruan, Fco. Escudero kontserbatorioko bakarlari eta abesbatzak Gabonetako bi oratorio eskainiko dituzte. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Astearte, 23

Kontzertua

THE UPPER ROOM bikoteak gospel eta espiritual beltzak eskainiko ditu. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 20:00etan.

Musika

SM61 TALDEAREN hip-hop, parkourra..., 11 eta 18 urte arteko gazteentzat. Andatza plazan 16:30etatik gauerdira arte.

Astelehena, 24

Kantaldia

OLENTZEROTAKO ERRONDA, auzoko plazan bildutan Goiegi, Loidi eta auzoko baserrietatik buelta trikitixa lagun izanik. Bukatzean luntxa eta Olentzerok opariak banatuko ditu. Zabaleta auzoan, 10:00etan, EUSKARAZ.

Kantaldia

NAZIMENTUAREN LAGUNAK trikitixa lagun izanik, Lasarte-Oriako kaleetan zehar, 10:00etan.

Kantaldia

ERKETZ DANTZA TALDEA Lasarte-Oriako ingurutako baserrietan kantuan. Erketz D.T.ren lokalean, 14:30ean, EUSKARAZ.

Kantaldia

ALBOKA ABESBATZAK kalea giro-tuko ditu Lasarte-Oriako kaleetan zehar. Atsotak auzoan, 16:00etan.

Jaialdia

OLENTZERORI ONGI-ETORRIA emateko jaialdia. Bertan Lur, Marko eta Ezti egongo dira, Amalur eskolako kideekin. Okendo plazan, 16:45etik aurrera, EUSKARAZ.



Ostirala, 26

Festa

GABONETAKO URETAKO FESTA haurrentzat. 5etik 12 urte bitarteko igeri dakiten haurrei zuzendua. Kiroldegiko igerilekuan, 09:30etik 12:30era arte.



Larunbata, 27

Kontzertua

ALBOKA ABESBATZAREN EMANALDIA Super Amarak antolatutako Gabonetako Koral Fest-aren barruan. Donostiako Kursalean, sarrera 10 euro. Ateratzen den dirua Calcuta ondoan eta Agipa Gobernu kanpoko erakundeentzako izango da.

Astelehena 29

Ikastaroa

FESTARAKO MAKILLAJE IKASTAROA. Doan izango da eta Mani's ileapaindegiko Adelak emango du ikastaroa. Emakumeen Zentro Zibikoan 11:00etatik 12:00ak bitarte.

Astearte, 30

Tailerrak

GRAFFITIETAK ETA TAILERRAK 17:30etatik 20:00etara, Villa Mirentxuko trinketean, Kale Hezitzaileek antolatuta.

Asteazkena, 31

Kotiloia

GAZTE KLUBEKO kideek kotiloia izango dute ludotekan bertan (Ola kalea 1), arratsaldeko 16:00etatik 18:30era.

Dantzaldia

URTE ZAHARREKO FESTA 2009 urtea erritmoarekin hasteko. Sarrera, 3 euro. Kulturetxeko kafetegian, 01:00etatik 05:00etara.

Igandea, 4

Txokolatada

TXOKOLATADA Michelingo Udal Kiroldegian. Haurrek sarrera doan dute eta helduen euro bat. Michelingo Udal Kiroldegia, 18:30ean.

Astelehena, 5

Kabalgata

ERREGEEN KABALGATA izango da herriko kaleetan zehar 18:00etatik aurrera.

Astearte, 6

Kontzertua

ALBOKA ABESBATZAK, urtero bezala, kontzertua eskainiko du Arantzazuko Amaren elizan goizeko mezan.

Zorion-agurrak




Arkaitz

Zorionak zure gurasoen eta osaba Rafaren partetik. Egun ona pasa! Muxu bat.



Dei

Zorionak! Txokolatezko 8 musu pottolo, amatxo, aitatxo eta Urtziren partetik. Ondo pasa !!



Endika

Zorionak zure urtebetzean. Sei muxu handi, familiaren partetik. Bereziki aita, ama eta Julen.



Isidoro eta Soledad

Zorionak zuen ezkontzaren urteurrenean. Gero eta gutxiago falta da zuen urrezko ezteietarako! Seme-alaben eta biloben partetik. Muxuak!

Ttakuneko kide guztien partetik

EGUBERRI ETA
URTEBERRI ON GUZTIOI!

Ondo pasa jaiak!

Kultur Ekarria
Ttakun



Marrazki eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Auzo Elkartek jakinarazten du, abenduaren 24an, 26n, 27an eta 31n eta urtarrilaren 2an eta 3an kultur etxea itxita egongo denez, egun horietan ez dela marrazki eta pintura klaserik izango.

Landaberriko otarraren zenbaki sarituak

Landaberri ikastolako gabonetako jaialdian egindako zozketaren zenbaki irabazleak ondorengoak izan dira: argaki kamara digitala, 558 zenbakia; musika ekipoa, 2.227 eta MP4, 649 zenbakia irabazleak izan dira. Irabazleak Landaberri ikastolatik pasa beharko dute.

EHNA egingo da 27an Okendo plazan

Abenduaren 27a larunbata, EHNA tramitazio eguna izango da. EHNA eskatzeko mahaia Okendo plazan jarriko da, esan bezala, hurrengo larunbatean hilak 27, 11:30etatik 13:30etara. Agiria tramitatu nahi duenak 3 argazki, errolda agiria eta 15 euro behar dituela gogoratu arazi dute. Eta, honetaz gain, EHNari buruzko informazioa eman go da eta zalantzak argituko dituzte.

Udal igerilekua itxita datorren ostiralean

Abenduaren 26an, haurrentzako uretako festa dela eta, igerilekua 9:00etatik 12:30etara itxita egongo da, helduentzat.

Aterpeko Eguneritako kanpaina

Aterpea Merkatarien elkarteak, 2008ko abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra arte, ez galdu aukera: Aterpea txartelarekin egin zure erosketak. 30 euroko erosketa bonoak lortu ditzakezu Aterpean elkarteak kide diren dendetan.

Batxilergo tituluak

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2007an bukatu zutenek, hau da 2006-07 ikasturteko batxilergo tituluak jaso daitezkeela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Danok Kideko Jaiotza

Jaiotza astean zehar 17:00etatik 20:00etara eta jai egunetan 11:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai.

Udal kirol Instalazioak itxita

Lasarte-Oriako Udal Kirol Instalazioak 2008 eta 2009 urtetarako onartua duen egutegiak agintzen duenez, datozten abenduaren 24, 25 eta 31an eta Urtarrilaren 1etan Udal Kirol Instalazioak itxita egongo dira.

2009ko egutegia

Lasarte-Oriako Ingurumene-ko, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitateko departamentuak jakinarazi nahi du, dagoeneko eskuragarri dagoela 2009ko egutegia eraikin munizipalean (KIUB, udaletxea, kulturetxea, Villa Mirentxu, kiroldegia). Publikazioak departamentuak duen filosofia adierazten du, gure ingurua babestu behar diren biltzen dira urtean zehar dau- den egun aipagarrienak, gogora araziko digutenak zer egin dezakegun eta egin behar dugun garapen jasangarria lortzeko.

Oriako jaiotza ikusgai

Oriako Karmengo Amaren kaperan jaiotza ikusgai dagoela jakinarazi nahi dute bertako bizilagunek. Ikusteko egunik egokiena igande da, goizeko 10:30etik 12:30ak bitartean irekita baitago kaperak.

Intalazioen epe luzeko alokairuak

Kirolen Udal Zerbitzuak Kirol Guneako frontoia, Kiroldegiko pista edo Trinketa 2009 urtean zenbait egun eta ordutan alokatzeko aukera eskaini du.

- Abenduaren 21a bitarteko epea ireki da interesatuek udalaren kirol instalazioetako atarian eskaera egin dezaten.

- Orduak abenduaren 22an 19:00etan Udalaren Kiroldegian egingo den zozketan banatuko dira; eskaera bakoitzari zenbaki bat emango zaio (zozketara bertaratutako diren eskatzaileei bakarrik). Abonatuak lehenatasuna dute. Zenbakiak atera hala orduak aukeratu- ko dira.

- Alokairuaren ordainketa, banku bidez helbideratuko da, bi zatitan: lehenengo zatia urtearen lehenengo sei hilekoan eta gainerakoa, bigarren sei hilekoan. Ez abonatuak sarra erordainduko dute, aparte.

-Kirolen Zerbitzuak instalazioa behar izanez gero, aste bat lehenago abisua emango die dagokien jokalariei. Kasu horretan ordaindutako dirua itzuliko da.

Kiroldegiko bazkidetza kanpaina

Kirolen Udal Zerbitzua, 2009. urteko bazkidetzak formalizatzeko beharrezkoak diren tramiteak egiteko asmoarekin, joan den azaro- az geroztik Udalaren Kirol Instalazioetako bazkideei dagokien jakinera zpena banatzen ari zaie. Erabiltzaile- ren batek bere gutuna jaso ez badu, komenigarria litzateke lehenbailehen Kiroldegiko bulegora joatea, publikoari zabalik dagoen ordutegian, eta bertan bazkidetzaren berrikuntza formalizatzea. Urtarrilaren 1ean eguneratuta ez dauden bazkidetzei automatikoki baja emango zaie.

Eskutitzak



Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriaren adierazpenak euskal selekzioaren izenaren inguruan

- Historia pixka bat terminoak denboran zehar kokatzeko:
 - Erromatarren garaian; II., III., IV., V. Hemen bizi zen giza taldeari Baskoiak deitzen zieten.
 - Ondoren, XI.-XVI. mendera arte, Nafar erreinuaren inguruan antolatuta ziren.
 - Mende latzak pasa ondoren, Sabino Aranak, XIX. mende bukaeran, euskal lurraldeari, Euzkadi deitzea erabaki zuen. Berak asmatu- tako terminoa, zeren eta, bere garaian abertzaletasunaren kontzientzia indarrez berpizten baita, baina informazio gutxiarekin kontatzen dute.
 - Jada XX. mendean, Euskadi bihurtzen da, "z" galduaz. EBB (Euskadi Buru Batzarra), ETA (Euskadi Ta Askatasuna) sortzen dira. Beti ere, euskal lurraldea bere osotasunean hartuta (7 probintziak, A., B., G., N., L., BN., Z.)
 - Francoren diktadura amaitean: PSE (Partido Socialista de Euska- di), PPPV (Partido Popular del Pais Vasco "Euskadi") sortzen dira.
 - Alderdi espainolek Euskadi terminoa bereganatzen dute, baina soilik EAEko hiru probintziak kontutan hartuz.
 - Beraz, azken hamarkadetan, Euskadi izenak, konfusioa eragi- ten duela iruditzen zaigu. Euskal abertzale baten buruan zazpi probintziako lurraldea irudikatuko du, baina espainol abertzale batentzat, Euskadi (Pais Vasco) EAEko hiru probintziak soilik.
 - Gure ustetan, termino egokiena, Euskal Herria izena da. Honela, denok dakigu zertaz ari garen. Hots, espainolek eta frantsesek onartu nahi ez duten, zazpi probintziez osaturiko lurraldeaz, gure nazioaz.
 - EH terminoa, euskal literaturan, Sabino Aranak, Euzkadi izena asmatu baino lehenagokoa da, baina garai horretan ez zegoen honen ezagutzarik. Orduan, mendeetan jasandako erreprezio izkutatzeko eta desagertze, suntsitze estrategiatatik.
 - Gaurko egunera bueltatuz. Futboleko selekzioaren izena Euskadi edo Euskal Herria izan behar den:
 - Futbol selekzioaren lagunarteko partida, Euskadiko Futbol Federazio- ak (EAE, hiru probintzi hartzen ditu baita) antolatzen du.
 - Partidarako, ordea, zazpi probintzietako kirolariak deitu ahal die, bertan jokatzeko. Jaialdian, zazpi probintzietako zale- ak hurbiltzen dira gainera, euskal identitatea bere osotasunean aldarrikatuz.
 - Nahiz eta EHko futbol jokalariek deitu, sarreraren bidez lortu- riko dirua, ez da EHko oinarritzko futbol taldeetara banatzen, EAEko elkarteetara baizik.
 - Ondorio gisa,
 - EHko kirolariak; Euskal Herria izenaren alde agertu dira eta selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen dute.
 - Euskadiko Futbol Federazioak ez du bat egiten bi aldarrika- pen horiekin.
 - Beraz, EHko Futbol Federazio baten beharra sentitzen da. Aurreko bi aldarrikapen horiek asebetetzeko.
 - Bilbon, abenduaren 27, arratsaldean, egingo den manifestazio- joateko deialdia luzatzen dugu.

Euskal Herria: Nazio bat, Selekzio bat, ofizialtasuna!

Bai Euskal Herriari

Txintxarrin zure iragarkia jartzeko, 943 366858

LIBRERIA MAITE

Eguberri on!

Geltoki 12
Tel.: 943 372791
LASARTE-ORIA

Eguberri on!


izari-Bi

ALTZARIAK

ONAK ETA MERKEAK

Oria etorbidea 3
Brunet polig., 42. pab.
Tel./faxa: 943 360496
LASARTE-ORIA

Olentzerori eskutitza



*Lasarte-Oriako Udalak Eguberri
eta Urteberri on opa dizue!*





Barceló Bidaiak

*Bidaiaritik bidaiarira:
besteek dutena dugu, baina zuretzat egokitua.
Etorri eta frogatu!*

Geltoki kalea 2
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 377900

Oporretako, ezkontzetako, taldeak, abentura, hegazkinak...



lasarte@barceloviajes.com

Maite **B**ETELU



Eguberri on!



- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Aseguruak
- B** Inmobiliariako zerbitzuak
- B** Etxebizitzaren administrazioa

Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

TABERNA *Buenetxea* KAFETEGIA

Ondo pasa Eguberri jaiak!


*Ezkontza ondorengo festa
luzatu dezakezu gurean.*

Proba itzazue
batido naturalak
gure terrazetan.

Txokolatea
txurroekin

Pintxoetan
aukera zabala

Aprobetxatu
zure apustua
hemen egiteko




Infusio
naturalak

Kafe bereziak:
Irlandesa
eskozesa
kaputxinoa
bonboia

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 363640 • LASARTE-ORIA





IZARRA BITXITEGIA

Eguberri jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.E.



Geltoki kalea 19, tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, tel.: 943 364945

